

**GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO
PRAKTIKEN, EGITASMOEN ETA ESPERIENTZIEN
IV. GIDALIBURUA**

2018

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

Idazkaritza Teknikoa: **Infopolis 2000, S. L.**

2018ko ekaina

Itzulpena: Bakun, S. L.

Maketazioa: Kalaka Koop. Elk. Txikia

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Metodologia	7
Genero-indarkeriaren aurkako praktikak, egitasmoak eta esperientziak	9
I. Prebentzioa	10
1.1. Ahalduntzea	10
• Bizkaiko Emakumeen Etxeak	10
1.2. Sentsibilizazioa eta informazioa	12
• #PorMi, desgaitasuna duten emakumeentzako genero-indarkeriaren kontrako aplikazioa	12
• “Detecta y actúa. Conoce: Guía de actuación contra la violencia sexual” argitalpena	14
• Emakumeen aurkako indarkeriaren mapa	16
II. Errealitatearen ezagutza	18
2.1. Datuen erregistroa eta jarraipena	18
• “Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida” argitalpena	18
2.2. Ikerketa eta hedapena	21
• Plataforma de Lucha Arte contra la Violencia de Género (ACVG)	21
• ARI galdetegia	23
• “Valoración forense del riesgo psicológico inicial en víctimas de violencia de género” artikulua	25
III. Arreta	27
3.1. Zerbitzuak	27
• Familian Esku Hartzeko Programa, bikoteko genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatua	27
• Krisialdiko babes psikologikoko zerbitzua genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen seme-alabentzat	29
• Indarkeriatik bizirik irteteko drogak erabiltzen dituzten emakumeentzako babes-inguruneak, “Metzineres”	31

• Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei lan-munduan sartzen laguntzeko gidaliburu interaktiboa	34
• “Actúa: atención sanitaria al maltrato” mugikorrerako aplikazioa	36
• “SAH Jóvenes” programa	38
• “VioPet” Indarkeriaren Biktima diren Animaliak Hartzeko Programa	40
• “Perro de Asistencia Judicial” programa	42
3.2. Profesionalentzako prestakuntza	44
• Genero-indarkeria egoeretan lan egiten duten interpreteentzako prebentzio- eta autolaguntza-estrategiak: Speak Out for Support (SOS-VICS)	44
• “Jabetuz” Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programa	47
• DVCI proiektua: etxeko indarkeria, esku-hartze estrategikoa koordinatuz	50
3.3. Erakundeen koordinazioa	52
• “Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakunde jarduketaren inguruan hobetzeko gomendio eta proposamenen III. txostena” dokumentuaren azterketa eta hedapena	52
• Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ematen zaien arretaren nazioarteko kalitate-estandarrak aztertzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko programa: Indarkeria pairatzen duten emakume eta neskentzako oinarritzko zerbitzuen paketea (Nazio Batuak)	54
Baliabideak	57
Eranskina: Genero-indarkeriaren behatokiak	59

Aurkezpena

2018an, Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien III. gidaliburua egin zenetik lau urte igaro direnean, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak (BGIB) IV. Gidaliburua argitaratu du erakundearen webgunean.

Emakumeen giza eskubideen urraketa, behar bereziak dituzten kolektiboak ardatz izatea eta adingabeak genero-indarkeriaren biktima gisa aitortzea izan dira egitasmoak bilatzeko eta biltzeko orduan kontuan hartu diren oinarriak. Egitasmo multzoa bat dator "Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakunde jarduketaren inguruan hobetzeko gomendio eta proposamenen III. txostena" dokumentuaren egiturarekin. Azken dokumentu hori Behatokiko Lantaldeak egin zuen 2017an, eta urte hartan argitaratu zen, organoaren bigarren helburuarekin bat etorritz: erakunde publikoek genero-indarkeriari aurre egiteko eskaintzen dituzten zerbitzuak eta prestazioak hobetzeko gomendioak eta proposamenak gitea.

IV. Gidaliburuan jasotzen diren praktikak hautatuz, **Beste erakunde batzuekin harremanetan egoteko eta beste administrazio batzuen praktika onak ezagutzeko** eginkizuna eguneratu da. Oraingo honetan, honako irizpide hauei jarraitu zaie egitasmoak aukeratzeko: genero-indarkeriari aurre egiteari lotutako alderdien berritasuna; ebaluazio partziala, egitasmoa garapen-prozesuan dagoelako, edo globala, esperientzia amaitu delako; egitasmo bakoitzaren indarguneak eta aurkikuntzak.

Prebentzioa, errealtatearen ezagutza eta arreta. Hiru epigrafe horietan sailkatu dira dokumentuan jasotzen diren praktikak. **Prebentzioan**, ahalduntzea, sentsibilizazioa eta informazioa jorratzen dira; **errealtatearen ezagutzan**, datuen erregistroa eta jarraipena, bai eta ikerketa eta zabalpena ere, eta **arretan**, zerbitzuak, profesionalentzako prestakuntza eta erakundeen arteko koordinazioa.

Oraingo honetan ere, eskerrak eman nahi dizkiegu hainbat administratziotako talde teknikoetako ordezkariari, elkarteei eta beste erakunde batzuetako informatzaileei, emandako laguntzagatik; izan ere, atsegin handiz eman digute beren egoitzetan eta beren arloan genero-indarkeriaren aurka egin dituzten proiektuei buruzko informazioa.

Metodologia

“Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakunde jarduketaren inguruan hobetzeko gomendio eta proposamenen III. txostena” argitalpena izan da *Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburu* honen erreferentzia, bai giza eskubideen urraketa honen aurka sortutako eskaera eta larrialdiei dagokienez, bai edukiak sailkatzeko egiturari dagokionez ere.

Dokumentua idatzi arte, prozesuak hainbat fase izan ditu:

1. Gomendioen III. txostenean jasotako alderdi garrantzitsuak helarazi ziren: Emakumeen giza eskubideen urraketa, Behar bereziak edo dibertsitate funtzionala dituzten kolektiboentzako arreta, eta Genero-indarkeriaren biktima estatusa aitortu zaien adingabeak.
2. Alderdi garrantzitsuei buruzko informazio aipagarria bildu zen.
3. Aurkibidean sailkatutako hiru arlo nagusiei buruzko informazioa bildu zen. Hala 2. nola 3. fasean, erabaki zen 2014. (III. gidaliburua argitaratu zen urtea) eta 2018. urteen arteko esperientziak bilatzea batez ere. Albisteen iturri gisa, honako hauek kontsultatu dira: erakundeen, elkarten eta GKEen webguneak, formatu klasikoko prentsa, prentsa digitala, albisteen bankuak, aldizkarik eta aldizkari elektronikoak.
4. Bilaketa-irizpideekin bat datozen esperientziak bilatu ziren.
5. Aurkibidearen proposamena egin zen.
6. Erakunderen batekin harremanetan jartzen hasteko lanak egin ziren, posta elektronikoko bidez, unean uneko datuak eskatzeko (praktikaren hasiera-data, izenburua...).
7. Esperientziak onartu edo baztertu ziren.
8. Praktiken behin betiko hautaketa egin zen.
9. Hautatutako egitasmoak sustatu dituzten erakundeei deitu zitzairen. Informazio-eskaeraren testuingurua azaldu zitzairen, eta galdetegi bat betetzeko gonbidapena egin zitzairen, Behatokiak aztertu nahi zuen praktikari buruzko datu gehiago izateko.
10. Banan-banako galdetegiak bidali zitzaizkion parte hartzeko prest agertu zen erakunde bakoitzari.
11. Galdetegiak beteta jaso ziren.
12. Proiektu bakoitzari dagozkion fitxak egin ziren.

Bildutako informazioa egitura honi jarraikiz antolatu zen fitxetan:

- Esperientziaren izenburua.
- Erakunde arduradunaren izena eta helbidea.
- Erakunde arduradunaren webgunea.
- Hartzaileak.
- Helburuak edo helburuen laburpena.
- Deskribapen labur bat, praktika hautatzeko kontuan hartu diren indarguneak eta bereizgarriak azaltzen dituen. Tartean diren erakundeek egindako balantzearekin bukatzen da.

**Genero-indarkeriaren aurkako
praktikak, egitasmoak eta esperientziak**

I PREBENTZIOA

1.1. Ahduntzea



Bizkaiko Emakumeen Etxeak

Erakundeak

Balmasedako Udala
Basauriko Udala
Durangoko Udala
Ermuko Udala
Ondarroako Udala

Webguneak

<http://www.balmaseda.eus/eu-ES/Orrialdeak/default.aspx>
<http://www.basauri.net/eu>
<http://www.durango-udala.net>
http://www.ermua.es/eu_index.asp
<http://www.ondarroa.eus>

Hartzaileak

Udalerrri horietan bizi diren emakumeak.
Emakumeen elkarteak.
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten duten beste erakunde batzuk.

Helburuen laburpena

Erreferentzia feministako gune bat ezartzea, emakumeen ahduntzea sustatzeko; emakumeen eta gizonen artean dauden botere-harremanen eraldaketa bultzatzea; udalerrietan emakumeen elkarten mugimendua eta parte-hartze soziopolitikoko beste espazio batzuk indartzea; emakumeen kolektiboen eta kolektibo feministen arteko sareak eta aliantzak sortzea; berdintasunaren arloko sorkuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatzea; genero-ikuspegia oinarri duen prestakuntza, sentsibilizazioa eta informazioa ematea.

Alderdi garrantzitsuak

2003. urtean inauguratu zen gune hauetako lehenengoa, Ermuko Emakumeen Topalekua, eta 2012an ireki zen Marienea, Basauriko Udalaren Emakumeen Etxea. Urte horien artean, beste hiru etxe egin ziren: Balmasedako Udalaren Emakumearen Etxea, 2004an, Etxelila Emakumin Topalekua (Ondarroa), 2007an, eta Andragunea (Durango), 2009an.

Udaleko Berdintasun arloek edo kontseiluek sustatzen dituzte etxeok, edo emakumeen mugimenduek edo mugimendu feministek eskatzen dituzte. Emakumeen topalekua eskaintzen duten guneak dira, baita berdintasunaren alde egiten duten gizon eta kolektiboena ere, eta honako hauek sustatzen dituzte: emakumeen elkarteak sortzea, ahalduntze indibidual eta kolektiboak, feminismoa, ezagutzak eman eta jasotzea, parte-hartze soziopolitikoak, kultura, aisialdia eta genero-indarkeriaren kontrako zerbitzuak (informazioa, prestakuntza, prebentzioa eta laguntza: psikologikoa eta juridikoa).

Bizkaiko bost etxeetatik lauk Ahalduntze Eskola bat dute. Zerbitzu hori nabarmentzekoa da; izan ere, laudorio asko jasotzen ditu erabiltzaileengandik, eta gero eta emakume gehiagok parte hartzen dute horietan.



Udal bakoitzak emakumeen errealitateari lotutako hainbat baliabide gune bakar batean biltzeak –ziurtatuta plataforma hori berdintasunaren inguruko eztabaida eta hausnarketa eta bertaratzen direnen arteko harremanak sustatuko dituen leku bat dela–, erraztu egiten du kontzeptu horri eraginkortasuna ematen lan egiten duten askotariko eragileen koordinazioa, zeharkakotasuna bultzatzen du udal-jardueran, eta parte hartzeko aukerak zabaltzen ditu, baita tokiko politikak garatzeko hartzen diren erabakietan emakumeek duten eragina ere.

I PREBENTZIOA

1.2. Sensibilizazioa eta informazioa



#PorMi, desgaitasuna duten emakumeentzako genero-indarkeriaren kontrako aplikazioa

Erakunde arduradunak

CERMI Mujeres Fundazioa
Vodafone España Fundazioa

Webgunea

<http://www.fundacioncermimujeres.es/>

Hartzaileak

Dibertsitate funtzionala izanik genero-indarkeria jasaten duten pertsonak:

- desgaitasun fisikoa,
- desgaitasun intelektuala,
- itsutasuna,
- mugikortasun urria,
- gortasuna.

Biktima zuzenak ez badira ere genero-indarkeria kasuak ezagutzen dituzten eta informazioa behar duten edo egoera horiek salatzeke asmoa duten pertsonak.

Helburuak

Genero-indarkeria ezagutzen eta hautematen laguntzea, eta alderdi hauei buruzko informazioa ematea: emakumeen eskubideak, baliabide telefonikoak, zerbitzu espezifikoak, salaketa-kanalak, laguntza psikologikoa, lege-aholkularitza eta aplikazioaren erabiltzaileak jasaten dituen indarkeria-egoerak identifikatzeko beste edozein informazio.

Alderdi garrantzitsuak

2017an, CERMI Mujeres fundazioak tresna teknologiko hau jarri zuen desgaitasunen bat duten emakumeen eskura. Alde batetik, irakurtzeko erraza da desgaitasun intelektuala dutenentzat, eta, bestetik informazioa bideo formatuan ikus daiteke, eta hor zeinu-hizkuntzako interprete batek itzultzen du edukia emakume gorrentzat eta emakume itsuek ere informazioa jaso dezakete.

Aplikazioaren beste aurkikuntzetako bat da konfidentzialtasuna bermatzen duen gailu bat duela: irteera-erlaintzak azkar funtzionatzen du; hala, erabiltzaileak berehala deskonekta daitezke #PorMi-tik. Gainera, deskarga ezkutatu egiten da mugikorren edo tabletaren terminalean, eta, hortaz, ezin da jakin deskargatu dela.

2017an aurkeztu zen tresna, eta 2018ko maiatzera bitarte, aplikazioaren 3.000 deskarga egin dira. CERMIIn biltzen diren erakunde gehienek ontzat jo dute tresna, erraz eta azkar lortzen delako informazioa eta erraztu egiten duelako desgaitasunen bat duten emakumeen kontrako indarkeria-egoerak salatzea.

Prestazio osagarriei dagokienez, gaur egun aplikazioa eguneratzeko prozesu bat egiten ari dira: edukiak estatuko gainerako hizkuntzetara itzuliko dira eta Genero Indarkeriaren kontrako Estatuaren Itunaren harira onetsitako neurriak sartuko dira, bai eta bereziki desgaitasuna duten emakumei eragiten dietenak ere.



Egitasmo honetan, nabarmentzekoa da teknologia berrien bitartez hiru ekintzatan (informatzea, sentsibilizatzea eta salatzea) laguntzen zaiela indarkeriaren biktima diren edo indarkeria jasateko arrisku larrian dauden eta behar bereziak dituzten emakumei; izan ere, kalteberatasun-egoeran egon ohi dira eta zailtasunak izaten dituzte genero-indarkeriaren kontrako baliabideak lortzeko. Gainera, aipagarria da aplikazioak konfidentzialtasuna bermatzen duela eta eskaintzen duen informazioa eguneratu egin daitekeela.



Detecta y actúa. Conoce: Guía de actuación contra la violencia sexual” argitalpena

Erakundeak

Emakumearen Andaluziako Institutua (IAM)

Emakume Biktimei Laguntzeko Elkartea (AMUVI)

Webgunea

<http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/>

Hartzaileak

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak:

- Sexu-erasoak.
- Sexu-abusua.
- Sexu-jazarpena.

Sexu-indarkeria digitalaren biktima diren emakumeak.

Sexu-abusuen eta -erasoen biktima diren 16 urtetik beherakoak.

Helburuak

Sexu-indarkeriaren aurkako jarraibide orokorrak eta prebentziorako, sentsibilizaziorako eta esku-hartzerako estrategiak ezartzea biktimentzat eta arretan esku hartzen duten profesionalentzat, ekintza hauetan oinarrituta: ezagutu, hauteman eta ekin.

Alderdi garrantzitsuak

AMUVI elkarteak egin zuen gida hau eta Emakumearen Andaluziako Institutuak (IAM) argitaratu zuen 2013an. 2017an eguneratu egin zen, sortutako eskaera zela eta. Kontsultarako tresna honek emakumeen aurkako indarkeria-egoerak ezagutzen eta hautematen laguntzen du eta eskubide-urraketa horien prebentzio, arreta, aholkularitza eta salaketaren arloan eman behar diren pausoak azaltzen ditu.

Argitalpenak kontzeptu- eta lege-esparru bat ezartzen du hasteko, eta Zigor Kodean (I.-III. kapituluetan) jasotzen diren sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei erreparatzen die, hau da, sexu-erasoei, sexu-abusuei eta 16 urtetik beherakoei egiten zaizkien sexu-abusu eta erasoei, bai eta sexu-jazarpenari ere.

Zigor-tratamendua finkatzean, gidak honako gai hauek jorratzen ditu: delituaren biktimaren Estatutua, Andaluziako Autonomia Erkidegoak ezartzen dituen arreta-protokoloak eta jarduketa-planak, sexu-indarkeria eremu digitalean, eta indarkeria hori prebenitzeko eta indarkeriaren biktimei arreta emateko Erkidegoan dauden baliabideen katalogoa, bai eta informazio- eta laguntza-baliabideena ere; horien artean daude telefonoen zerrendak, *online* aholkularitza juridikoa eta IAMren probintziako helbideak.



Gida hau praktika egokia da BGI Buren IV. gidaliburu honetarako; izan ere, emakumeen kontrako indarkeria mota jakin bati buruz sentsibilizatzea eta informatzea du helburu, zehazki, sexu-indarkeriari buruz, zeinak ez baitu lehentasunezko lekua izaten normalean ikerketetan, eta, izatekotan, genero-indarkeriaren gehigarritzat jotzen da. Halaber, esperientzia arrakastatsua izan da, pertsona askok behin eta berriz agertu baitzuten gida eskuratzeko interesa eta horren ondorioz berriro argitaratu zen: beste 5.000 ale egin ziren.

Argitalpen eguneratua IAMren Probintzietako Zentroek 2017an antolatutako sexu-indarkeriari buruzko Probintzietako Jardunaldietan zabaldu zen. Zortzi prestakuntza-jarduera egin ziren sexu-indarkeriaren prebentzioan eta arretan diziplinarteko ikuspegiarekin (juridiko-psikologikoa) eta modu koordinatuan esku hartzeari buruz. 45 hizlarik parte hartu zuten, eta 454 pertsona bertaratu ziren, gehienak biktimekin esku hartzeko hainbat arlotako profesionalak: horrek erakusten du badagoela interesa sexu-eskubideak urratzearen inguruko arazoa nola landu ikasteko.



Emakumeen aurkako indarkeriaren mapa

Erakundea

Bizkaiko Foru Aldundia

Webgunea

<http://web.bizkaia.eus/eu/inicio>

Hartzaileak

Herritarrak.

Helburuak

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren muturreko ondorioak bistaratzea: hainbeste emakumek jasaten duten indarkeria; biktimak aitortzea; eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako sentsibilizazioa zabaltzea.

Alderdi garrantzitsuak

Berdintasuna eta Kooperazioa Sustatzeko Zuzendaritzak, 2017an, ariketa bisual hau argitaratu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean, ulertarazteko indarkeria mota hau gertu dagoela eta biktimen kopuruak delituei buruzko zifretan jasotzen dena gainditzen duela.

Mapan, adierazle lila batekin agertzen dira 2004tik 2017ra emakumeen kontrako indarkeria ekintzak gertatu diren Bizkaiko 107 herriak. Indarkeria-ekintza horien artean kontuan hartzen dira bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak zein familia barruan gertatukoak, eta sexu-indarkeria, biktima hil ala ez. Hau da, bi atalek osatzen dute irudikapen kartografiko hau: **erailketak** eta **erasoak**.

Informazioaren irudikapenari dagokionez, adierazlearen gainean edo maparen azpian dagoen testuaren gainean (udalerraren izena eta eguna agertzen dira) sakatuz gero, indarkeria-ekintzari buruzko datuak agertzen dira. Azpiatal hauetan jasotzen dira datuak: gertaerak, kondena, erreakzio soziala eta sententziaren laburpena (sententzia osoa ere irakur daiteke). Datu horiek guztiak Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren informazio-iturrietatik, Ertzaintzatik, jurisprudentzietatik eta lurraldeko prentsa-hemerotekatik lortu dira.



Egitasmo honen indargunea alderantzizko ikuspegia da; izan ere, Bizkaiko mapak indarkeria eta erailketa eragin dituzten gizonengan jartzen du salaketa-fokua, hau da, kaltegilean, eta protagonismoa ez zaie emakume biktimei ematen.

Horren harira, Enplegua, Berdintasuna eta Gizarteratzea Sustatzeko foru-diputatu M^a Teresa Laespadak honako hau adierazi du:

Hilketa bat egiten denean komunikabideetan biktima eta bere inguruabarrak agertzen dira. Batzuetan baita bere identitatea eta irudia ere. Eta, behar baino gehiagotan [...] ez dira nabarmentzen biktima horrek merezi duen errekonozimendua eta bere duintasuna. [...] Eta alderantziz, oso gutxitan ezagutzen ditugu hiltzailea eta bere inguruabarrak¹.

Bestalde, herritarrak sentsibilizatzeko eta informatzeko diseinatu den tresna honetan, emakumeei emakume izate hutsagatik egin zaizkien erasoen biktima guztiak jasotzen dira, oroitzapenaren bitartez haien memoria ohoratzeko asmoz, eta haien aurka egindako erailketa- eta eraso-delituak ere biltzen ditu.

¹ Hemen: *BGIB Buletina*, 47. zk., 2018.

II ERREALITATEAREN EZAGUTZA

2.1. Datuen erregistroa eta jarraipena



“Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida” argitalpena

Egilea

Ticdatum SLU

Argitalpena

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Webgunea

<http://www.emakunde.euskadi.eus/hasiera/>

Hartzaileak

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen datuak biltzeaz arduratzen diren arreta-erakundeetako profesionalak, baita hirugarren pertsonenak ere:

- senideak,
- aurreko senideak,
- 14 urtetik beherako ondorengoak,
- 14 urtetik gorako ondorengoak,
- 18 urtetik gorako ondorengoak,
- bizilagunak,
- gertaerak ezagutzen dituzten pertsonak,
- erasotzailea.

Helburuak

Bi manu hauen arteko elkarrizketa argitzea: batetik, koordinatzeko beharra, oneratzeko prozesua erraztuko duen arreta eskaintzeko; eta, bestetik, emakumeek prozesu horietan hartzen dituzten erabakiak errespetatzeko beharra eta emakumeei beraiei buruzko datuen gaineko kontrola bermatzeko beharra.

Alderdi garrantzitsuak

Indarkeriaren biktima diren emakumeen datuak babestuta izatea bermatuz koordinazio eraginkorra bideratzeak biltzen ditu 2015ean argitaratutako gidaren bi helburuak.

Testuaren hasieran, lege-esparrua adierazten da, eta ondoren, sei kapitulutan banatzen da gida. Kapitulu horietan, biktimei zein informazio mota eman behar zaion azaltzen da, bai eta datu pertsonalak biltzeko zein prozedurari jarraitu behar zaion ere, honako eragiketa hauen bitartez: datuen tratamendua, lagapena, segurtasuna, kontserbazio- edo erabilera-aldia eta ARCO eskubideak (datuetara sartzea, datuak zuzentzea, ezereztea eta datuei aurka egitea).

Testuak hiru eranskin ditu amaieran: "Datu pertsonalak jaso eta lagatzeko baimen informatuaren klausula", "FAQ-Gida operatiboa gauzatzeko prozesuan teknikariek maiz egiten dituzten galderak" eta "Datuak lagatzea adingabeen arretan emakumeen kontrako indarkeria-egoeren aurrean".

Emakundeko iturrien arabera, argitalpenak gai nagusi bat jartzen du agendan: datu pertsonalak babestearen funtzioa, beharrezkoa denean biktimen arreta kudeatzen duten erakundeen arteko koordinazioa, eta arreta ematen lan egiten duten profesionalentzako laguntza koordinazio hori hobetzeko, datuen babesari buruzko araudia aztertuz.



Praktika aitzindaria da, datuen erregistroari buruzko eta genero-indarkeriaren arretaren arloko jarraipenari buruzko egitasmo gutxi baitaude, eta beste indargune batzuk ere baditu: emakume biktimei arreta ematera bideratutako erakunde publikoen arteko koordinazioa sustatzea eta hobetzea; arreta-zerbitzuetan biktimen datu pertsonalak jasotzeko jarduketa profesionalerako prozedurak ezartzea; aplikazioaren hiru urte igaro ondoren Euskal Autonomia Erkidegoan izan duen ibilbidea ebaluatzea (EAE).

Bai biktimei laguntza ematen dieten profesionalak bai udaletako arreta-protokoloak diseinatzen eta koordinatzen aritzen diren langileak pozik daude tresna honekin, eta maiz aipatzen dute EAEko hainbat udalerrri, mankomunitate eta kuadrilletako protokoloetan. Balorazio horietan FAQen formulazioari buruzko 2. eranskina aipatzen dute bereziki, haren praktikotasunagatik; izan ere, lagungarria da ebazpen azkar bat eskatzen duten zalantzak argitzeko.

Adibide gisa, 10. galdera jasoko dugu:

EGINDAKO GALDERA: Erakunde batek (A) datu pertsonalak laga dizkio beste erakunde bati (B), emakumearen baimenarekin, etab. Bigarren erakunde horrek (B) bere aldetik laga diezazkioke datuak beste erakunde bati (C) azken erakunde horrek (C) emakumearen egoera ezagutzea interesekoa izan daitekeela uste duelako?

Interesa emakumeak behar duen laguntzako helburu bezala ulertu behar da derrigorrez. Egoera horrela definituta, B erakundeak egiaztatu egin behar du emakumearen baimenari lotutako baldintzak betetzen dituela, bere aldetik datu horiek C erakundeari lagatzeko edo, bestela, egiaztatu behar du lagapena gaitzen duen legezko arau bat dagoen edo emakumeak behar duen laguntza-helburuari dagozkion eskumen berberak diren.

Dokumentuaren indarraldiari dagokionez, berrikusten ari dira erregelamendu honetara egokitzeko: [2016/679 Erregelamendua \(EB\)](#), [2016ko apirilaren 27koa](#), [Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena](#), [datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa](#); horren bidez [95/46/CE Zuzentaraua](#) indargabetzen da ([Datuak babesteko erregelamendu orokorra](#)).

II ERREALITATEAREN EZAGUTZA

2.2. Ikerketa eta hedapena



Plataforma de Lucha Arte contra la Violencia de Género, ACVG

Erakundea

Valentziako Unibertsitate Politeknikoa (UPV)

Webgunea

<http://artecontraviolenciadegenero.org/>

Hartzaileak

Arte Ederretako ikertzaileak.
Arte Ederretako irakasleak.
Arte Ederretako ikasleak.
Genero-arloko arte-ikasketetako ikasleak.

Helburuen laburpena

Dokumentu-artxibo bat sortzea historiaren, arte ederren, genero-ikasketen eta teknologia berrien arloko ikerketa eta irakaskuntzarako, genero-indarkeria askotariko optiketarik ezagutaraz dadin eta aurre egin dakion; genero-indarkeria prebenitzea diziplina askotako ekintzen eta elkarrizketaren bitartez (saiakera, kritika artistikoa, instalazioa, argazkilaritza digitala, bideoarte...); galeria birtual bat ekoiztea artistek eta teorikoek teknologia berrien bitartez genero-indarkeriaren aurkako borrokan parte har dezaten sustatzeko; genero-indarkeriaren aurkako borrokari buruzko estatuko eta nazioarteko egitasmoak sustatzea eta abiaraztea; teoria eta praxi artistikoaren bitartez aukeraberdintasunean oinarritutako hezkuntza eskainiko duten paradigmak ezagutaraztea eta proposatzea.

Alderdi garrantzitsuak

ACVG, Artearen eta Teknologiaren bidez Genero Indarkeriaren aurka Borrokatzeko Web Plataforma, 2010ean sortu zen —UPVko Arte Ederren Fakultateak eta Laboratorio de Creaciones Intermedia (LCI) laborategiak sustatuta—. Sare aktibo horrek genero-indarkeriak eragindako eskubideen urraketa ebaluatzen du eta horren aurka egiten du, batez ere Espainian eta Latinoamerikan egiten diren eta diskriminazio-egoera gainditzeko teknologia berriez baliatzen diren obra artistikoak dokumentatzeko, katalogatzeko eta ezagutarazteko metodologiak aplikatuz.

Plataformako zuzendari Mau Monleón Pradasek egitasmoaren indargune nagusiak laburbildu ditu: “ACVG genero-indarkeriaren gaia arte bisualen eta plastikoen ikuspegitik jorratzen duen genero-indarkeriaren aurkako artearen nazioarteko lehen borroka-plataforma da, eta garrantzi berezia ematen dio ikus-entzunezko baliabideen eta sare sozialen bitartez iruditeria kolektiboak sortzeari”.

Honako hauek dira, besteak beste, esperientzia honen indarguneak: sinposioak, jardunaldiak, kongresuak, hitzaldiak eta halako ekitaldiak antolatzea genero-indarkeriaren askotariko formak eztabaidatzeko eta ezagutarazteko, feminizidua barne, eta hezkuntza arloan genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko eta prebenitzeko hainbat forma planteatzea; genero-indarkeriari buruzko erakusketak antolatzea eta komisariatzea; proiektuak eta horien emaitzak erakusten dituzten bideoak ekoiztea eta argitalpenak editatzea, indarkeriari ikusgarritasuna emateko eta horren inguruko sentsibilizazioa zabaltzeko. Horrez gain, egitasmoak beste plataforma eta erakunde batzuekin sareak eratzea lortu du, hala tokian tokiko eta Valentziako Erkidegoko elkarteekin nola estatuko nahiz nazioarteko erakundeekin (batez ere Erdialdeko Amerikarekin, Hego Amerikarekin eta Ipar Amerikarekin).

Egitasmoa martxan jarri eta zortzi urtera, ACVGren balantzea positiboa da neurri handi batean; izan ere, museoekin, instituzioekin edo aktibismo soziopolitikoarekin lotutako estatuko eta nazioarteko egitasmo artistiko eta kulturez gain, unibertsitateko ikasleentzat pentsatutako ikus-entzunezko ikerketa-proiektuak ere egin dituzte parte-hartzean eta hezkuntzan oinarrituta.

Halaber, antolatutako jarduera batzuek (erakusketak, hitzaldiak...) hiru helburu izan dituzte: emakumeak ahalduntzea, maskulinitate berriak sustatzea eta genero-indarkeriari aurre egiteko ekitatea bilatzea.



Latinoamerikan eta Ipar Amerikan errotuta dauden artistek, kasurako 1970eko hamarkadan genero-indarkeriaren aurkako borrokan aitzindari izan ziren artista feminista erradikalek, berretsi egiten dute praktika honen bikaintasuna. Berezia eta bakarra da artean, eta erreferentia arteari aplikatutako teknologia berrietan; hain zuzen ere, esperimentazio teknologiko horrek berrikuntza ekarri du genero-indarkeria bere forma estruktural, sinboliko, fisiko eta psikologiko guztietan deuseztatzeko moduetara.



ARI galdetegia (Autodiagnostikoa Harremanak Berdintasuna)

Autorea

Carmina Serrano Hernández

Webgunea

<http://terapiaygenero.org/>

Hartzaileak

22 urtetik beherako emakumeak.

22 urtetik gorako emakumeak.

22 urtetik beherako gizonak.

22 urtetik gorako gizonak.

Helburuen laburpena

Galdetegia betetzen dutenei harreman parekideak izateko behar diren gaitasunak ezagutzeko aukera ematea; Euskal Autonomia Erkidegoan izandako pertsonen arteko harremanetan lortutako berdintasun-maila ebaluatzea; fidagarritasunez balioestea tratu txarrak jasan dituzten emakumeen subjektibitatean eragindako kalteak; eta aztertzea zein modu sotilean sartzen den genero-indarkeria pertsonen barnean, beren bizitzeko, pentsatzeko, maitatzeko eta abarrerako modua baldintzatu arte.

Alderdi garrantzitsuak

ARI autodiagnostikorako galdetegia Carmina Serrano Hernández Psikologian doktoreak sortu zuen, “Un estudio sobre los efectos de la violencia de género en el desarrollo psíquico de las mujeres” ikerketarako. 2013an aurkeztu zuen, doktoretza-tesi moduan, eta ordutik Terapia y Género elkartearen webgunean dago, elkarte horretako kide baita.

Aipatutako tesian, 260 emakumek erantzun zioten galdetegiari; horietako 60 ziren tratu txarrak jasandakoak. Kasuak aztertu ondoren, baieztatu zen badirela desberdintasun-egoerak, naturalizatuta egotearen poderioz, antzematen ez direnak.

“ARI galdetegia froga oso fidagarria da genero-indarkeriak buruan eragiten dituen kalteak ebaluatzeko”², baieztatu zuen Serranok 2014an *BGIB Buletinari* emandako elkarrizketa batean. Adituak azaldu du galdetegia tailerretan ere ari direla aplikatzen, eta haiek egitean, parte-hartzaileek, betetzeaz gain, genero-indarkeriak izan ditzakeen agerpen sotilen inguruko informazioa jasotzen dutela, baita berdintasunerako gaitasunen inguruko informazioa ere: erregulazio emozionala, autoberrespena edo ahalduak, asertibitatea, ebaluazioa eta balorazioa eta mentalizazioa; horiek oso kaltetuak zeuden 2013an galdetegia erantzun zuten indarkeriaren biktima ziren 60 emakume horietan.

Tailerrak eman zaizkien eta galdetegia erantzun duten emakume horiek asebetetze handia erakutsi dute; izan ere “genero-indarkeria zer den eta nola eragiten dien ulertzeko aukera eman die”, azaldu du Serranok. Hark ziurtatzen du proiektu hau genero-indarkeria ikusarazten laguntzeko tresna erabilgarria dela, eta azpimarratu du galdetegia irakaspen teorikoak izateko esparru egoki batean betetzea komeni dela, tailerretan gertatzen den moduan.



2018ko maiatzera arte, 350 galdetegi zituen erantzunda prozesu ireki honek. EAEn esparruan pertsonen arteko harremanetan lortutako berdintasun-indizearen inguruko ikerketa honetan, haiek dira doktoreak egin dituen aurkikuntza nabarmenenak: norbere bikote-harremanetan dagoen berdintasun edo desberdintasun mailaren autodiagnostikoa eskuratzea, jakitea ea galdetegia erantzun duen pertsonak genero-indarkeria jasaten duen, galdetegia egiteko erraztasuna eta prestasuna, ezagutza zabaltzea genero-indarkeriaren inguruan eta hura jasaten duten edo jasan duten emakumeen plano psikiko eta emozionalean dituen adierazpenak, eta nola horrek biktimen jokabidea baldintzatzen duen, eta ikerketan izandako parte-hartzea.

² Hemen: *BGIB Buletina*, 34. zk., 2014.



Artikuluia: “Valoración forense del riesgo psicológico inicial en víctimas de violencia de género”, egile asko

Egileetako bat

María Soledad Rodríguez Albarrán

Webgunea

http://scielo.isciii.es/scielo.php?pid=1135-7606&script=sci_issues

Hartzaileak

Auzitegi-medikuntzako profesionalak.

Helburuen laburpena

Zehaztea ea genero-indarkeriak biktimengan eragiten duen depresioa eta antsietatea ebaluatzeko galdetegiak egokiak diren indarkeria antzematen den hasierako unean, eta lehen hurbilpena edo baheketa egitea, **ez diagnostikoa**, “epaiketa azkarra” egin aurreko momentuetan, guardiako epaitegian auzitegi-medikuak egiten duen lehen azterketan sintomatologia psikopatologikoa dagoen ala ez baieztatzeko.

Alderdi garrantzitsuak

2017an argitaratu zen, hemen: *Cuadernos de Medicina Forense* 2016, 22. lib. (3-4): 64-72, Málaga, 2016ko [uzt./abe](#). Matematikan doktore den batek eta medikuntzako bost profesionalek egin zutena; horien artean, María Soledad Rodríguez Albarrán, Madrilgo Erkidegoko Emakumeenganako Indarkeriaren 10. Epaitegiko auzitegi-medikua.

Ikerketa deskribatzaile honetan, genero-indarkeriaren 93 biktimako laginaren gaineko azterketa egin zen, 19 eta 65 urte artekoak denak, eta Madrilgo komisarietan salaketa jarri ondoren Madril hiriburuko genero-indarkeria epaitegietara joandakoak, epaiketa azkar bat egiteko, 2012ko abendutik 2013ko urrira bitarte.

Epaiketa azkarra egin aurretik, multzoari auzitegi-medikuaren lehen baheketa-azterketa egin zitzaizen, sintoma psikopatologikoak antzeman eta haien depresio- edo antsietate-gradua ondorioztatzeko.

Horretarako, Beck³ eta Zung SAS⁴-en etsipen-eskalak aplikatu zitzaizkien, eta salaketa aurkeztean Poliziak egindako arrisku-txostena begiratu zuten.

Ikerketaren emaitzek baieztatzen dute emakume guztiek zutela depresio neurritsua edo handia, eta adinaren, nazionalitatearen, maila sozioekonomiaren edo prestakuntzaren aldagaiek ez zutela puntuazio handiagorik eragiten. Era berean, baieztatu zen arrisku polizialaren eta depresio-graduaren artean proportzio zuzena zegoela: zenbat eta arrisku handiagoa, orduan eta depresio-maila altuagoa.

Arrisku forentsearen balorazio orokorrari dagokionez, doktorea ados dago Enrique Echeburúak⁵ proposatutako arriskuaren Balorazio Osoa (medikoa, psikologikoa eta soziala) aplikatzeak baheketaren eraginkortasuna hobetzen laguntzen duela, eta uste du oso onargarria dela azterketaren emaitza genero-indarkeriaren biktimen arrisku psikologikoetan aplikatzea, auzitegi-medikuntza arloko profesionalek.

Behin psikologiako profesionalek egokia den balioztatuta, eta ondoren urruntzeko, laguntza psikologiko, sozial eta psikiatrikoko, eta lehen arretarako neurriak hartuta, test horiek autoaplikatzeak biktimen eboluzio sintomatiko on bat erakusten du.



Laburbilduz: praktika honen indarguneen artean daude klinika-arloan eta ikerketan erabiltzen diren bi tresna psikometrikoak, ez dituztenak erabili ez genero-indarkeria artatzean, ez zientzia forentseetan; eta testek⁶ emakume biktimen kalte psikikoa (lesio psikikoa⁷ eta ondorio emozional eta psikikoak⁸) antzemateko duten fidagarritasuna. Horrenbestez, eskalak ahalik eta indarkeria kasu gehienetan aplikatzea gomendatzen da.

³ BDI, Beck Depression Inventory.

⁴ SDS, Depresioa Autoebalutzeko Eskala.

⁵ "Escala de Predicción de Riesgo de Violencia contra la Pareja (EPV-R)", Enrique Echeburúa, Pedro Javier Amor, Ismael Loinaz eta Paz de Corral. *Psicothema* 2010. 22. lib., 4. zk., 1.054-1.060 or.

⁶ BAI (Becken Antsietate Inbentarioa): azken hau arrisku poliziala, aurrekariak eta halakoen zantzuak daudenerako...

⁷ Lesio psikikoa: asaldura kliniko akutua, pertsona batek indarkeriazko delitu bat jasatearen ondorioztat sufritzen duena, eta eguneroko bizitzarako ezgaitzen duena, askotan denborarekin, laguntza sozialarekin edo tratamendu psikologiko egokiarekin arindu daitekeena. Hemen: Enrique Echeburúa, Paz de Corral eta Pedro Javier Amor, "Evaluación del daño psicológico en las víctimas de delitos violentos". *Psicopatología Clínica, Legal y Forense*. 4. lib., 2004, 227-244 or.

⁸ Ondorio emozional edo psikikoa: kalte psikikoak egonkortzea, eta kronikoki jarraitzea delituaren eragina jasan duenetik bi urtera; bereko izaeraren ezaugarri desorekatu moduan azaltzen dira, zeinak subjektua ingurura egokitzea zailtzen baitute. *Ibidem*.

III ARRETA

3.1. Zerbitzuak



Familian Esku Hartzeko Programa, bikoteko genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatua

Erakundea

Bizkaiko Foru Aldundia

Webgunea

<http://web.bizkaia.eus/eu/inicio>

Hartzaileak

Genero-indarkeriaren eraginpean egon diren 3 eta 18 urte arteko herritarrak.

Haien amak, genero-indarkeria egoeretan egon direnak.

Erasotzaileak ez diren aitak.

Senide bizikideak.

Esku hartzeko eskatzen duten aita erasotzaileak, beren ondorengoen ongizatean duen arriskua baloratu ondoren.

Bikotekideak erail dituen amen adingabeko seme-alabak.

Helburuak

Baloratzea haurrengan, nerabeengan eta amaren eta seme-alaben arteko harremanean sortutako kaltea, egin beharreko esku-hartzea programatzea, ebaluazio jarraitua egitea eta eragile sozialen arteko koordinazioari eta lankidetzari ekitea.

Alderdi garrantzitsuak

Emakumea eta Familiako Esku Hartzea foru-zerbitzuak 2016an inauguratu zuen programa hau. Bizkaian bizi diren eta indarkeria matxistako familia-testuinguruetan bizi izan diren adingabeentzako programa bat da, eta azken helburutzat du arreta espezializatua ematea eta egindako kaltearen erreparazioan laguntzea.

Programaren bidez, adingabeko herritarrengan eta amaren eta seme-alaben arteko harremanean genero-indarkeriak izandako eraginean esku hartzen da, eta, era berean, haiek babesteko faktoreak indartzen dira.

Programa honen onuradunak izango diren haur eta nerabeek banan-banango arreta jasotzen dute, bai psikoterapeutikoa eta bai psikohezkuntzako, asteroko maiztasunarekin eta iraupen malguarekin; izan ere, programaren ezaugarri nagusia da indibidualizatu egiten dela, teknikak onuradunaren adinari eta inguruabar pertsonalei egokituta. Horrez gain, programak ama, aita (erasotzailea edo erasotzailea ez dena) eta senide bizikideak ere barne hatzen ditu, betiere baldintza batzuk betetzen badituzte.

Ekimenaren indargunetzat, hauek nabarmendu dituzte: ematen den arretaren maiztasuna eta intentsitatea, eta aita erasotzaileek esku hartzeko aukera izatea, ez badago adingabeen aldeko babes-agindurik eta esku-hartzeak ez baditu arriskuan jartzen seme-alabak eta emakumea bera. Beste bereizgarri bat da bikotekideek erail dituzten emakumeen seme-alaba adingabeei arreta ematen zaiela.

Programa hasi zenetik bi urte apenas pasatu diren honetan, datuek adierazten dute betetzen ari direla banan-banango esku-hartzeko helburu jakin batzuk; izan ere, "programara jotzen duten hurrek eta nerabeek bilakaera ona izaten dute, eta egokitzen jotzen da ematen zaien arreta", baieztatu du programa koordinatzen duen psikologoak.

Esku-hartzen duten amei dagokienez, aktiboki hartzen dute parte, eta haien laguntzako jarrera onuragarria da beren seme-alabak osatzeko, baita haien eta hezkuntzako figuraren arteko elkarriketak uztartzen dituen prozesua ondo garatzeko ere.

Aitei dagokienez, beren ondorengoen adinaren arabera, oztopo handia izaten da haiei jakinarazi behar izatea edo esku hartzeko baimena eskatu behar izatea. Egoera horretan, bi erantzun izaten dira:

- a) Ezezkoa, eta horrek amak izapide judizialak egin behar izatea dakar; horrek argi eta garbi kalte egiten dio adingabeari.
- b) Onartzea, eta ondorioz, tratamenduan sartzea eta bertan aktiboki parte hartzeko aukera izatea.



Programa IV. gidalibururako aukeratu izanaren arrazoia da ematen duen arretak ezaugarri espezifiko batzuk dituela: genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei zuzentzen zaie, beraz, genero-indarkeriaren biktimei; bikotekideek erail dituzten emakumeen seme-alabei zuzentzen zaie; beste ikuspegi batetik, aita erasotzaileekin esku hartzen da, baldin eta beren ondorengoen ongizatea nahi badute; eta, genero-indarkeriaren biktimen arretaren arloan, administrazio publikoen eta gizarte-eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea bermatzen du.



Krisialdiko babes psikologikoko zerbitzua genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen seme-alabentzat

Erakundea

Emakumearen Andaluziako Institutua (IAM)

Webgunea

<http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/>

Hartzaileak

Genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen seme-alabak.

Seme-alaben senideak, bereziki izatez hartzen dituztenak.

Hezkuntza-komunitatea.

Andaluziako Emakumearen Institutuko probintzietako zentroetako profesionalak eta emakume biktimekin esku hartzen espezializatutako tokiko beste baliabide batzuetako profesionalak, kasuan inplikaturakoak.

Arlo desberdinetako profesionalak, gertakariak jazo diren tokikoak.

Helburuak

Krisialdiko laguntza eta esku-hartze psikologikoa ematea erail duten emakumearen seme-alaba adingabeei eta haien senideei, profesionalen taldeak egindako gehienez ere hiru esku-hartzeren bidez (lehen 24 orduetan, ondorengo 24-48 orduetan, eta, gero, 48-72 ordu bitartean); adingabeen hezkuntza-komunitatearekin esku-hartzea egitea; eta etorkizunean adingabeak edo beren senideak artatu ditzaketen beste arlo batzuetako (osasuna, gizarte-zerbitzuak, segurtasun-indarrak eta -kidegoak) profesionalekin jardutea, aholkularitza, koordinazio eta esku-hartzeen bidez.

Alderdi garrantzitsuak

Genero-indarkeria deuseztatzeko lan-lerroarekin bat eginda, IAMk, 2016an, Asociación Acción Social por la Igualdad elkarteak kudeatutako zerbitzu hau jarri zuen martxan. Krisialdiko esku-hartze psikologikoan eta genero-indarkerian adituak diren profesional talde batek osatzen du, zeinak esperientzia baitu adingabeen eta beren senideen arretan, esku-hartzean eta orientazioan. Bere helburua da kasu bakoitzari erantzun espezializatua ematea, genero-ikuspegitik.

Zerbitzu hau gertakariak jazo diren edo adingabeak dauden lekuan ematen da, eta jarduketa honek bermatzen du edozein familiak zerbitzurako sarbidea izatea; hala, sendotu egiten da Andaluziako emakumeen kontrako indarkeriaren gaia lantzeko eredu integralen Erkidegoko estrategia.

Jarduketa-prozedura honela hasten da: bi profesional, gutxienez, dagokion tokira joaten dira krisialdiko lehen esku-hartze psikologikoa egiteko, hau da, lehen sorospen psikologikoak, dolurako babesa, eta berri txarrak komunikatzeko aholkularitza. Horretarako, zeregin hauek egiten dituzte:

- Lehen sorospen psikologikoak ematea genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumearen seme-alabei.
- Senideak aholkatzea berri txarrak komunikatzeko.
- Hedabideekiko harremanen inguruan orientatzea.
- Genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumearen seme-alabei doluan laguntzea eta dolu patologikoa saihesten laguntzea.
- Emozioak kudeatzen eta egoerari aurre egiteko baliabide pertsonalak aktibatzen laguntzea genero-indarkeriaren ondorioz hildakoaren ondorengoei.
- Jarraibide eta argibideak ematea hurrengo egunetan adingabeekin erabiltzeko.
- Adingabeei erraztasunak ematea Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeen Seme-alabentzako Arreta Psikologiko Zerbitzuaz baliatzeko.



Ekimenaren indarguneen artean, nabarmentzeko da berehala ematen dietela arreta beren amak hil direla-eta ondorio larriak jasan ditzaketen adingabeei.

Trauma osteko estresa, beldurra, gaueko izu-ikarak, segurtasun-falta, hira, bakartzea, antsietatea, depresioa, esfinterra kontrolatzeko arazoak, erregresioa, substantzia toxikoez eta alkoholaz abusatzea, etxetik alde egitea eta beren buruaz beste egiteko saiakerak. Horiek izan daitezke erail dituzten emakumeen seme-alabek izan ditzaketen ondorioak, zenbait aldagairen arabera: adina, krimena ikusi izana, eta erailea edo hiltzailea beren aita izan den.



Ekimenaren beste bereizgarri bat da familiara ez ezik esku-hartzea adingabearen inguruko beste eremu batzuetara ere zabaltzen dela (hezkuntza-komunitatea, emakume biktimekin esku hartzen espezializatutako tokiko beste baliabideak...).

Baliabidearen funtzionamendutik eratorritako balantzeari dagokionez, 2017ko bukaerara arte, sei aldiz aktibatu da zerbitzua: bost aldiz krisialdian edo inpaktuan bertan, eta behin inpaktuaren ondoren (hezkuntza-komunitatearekin eta adingabeko biktima horiek artatzen jarraitu behar duten profesionalekin); eta babesa eman zaie bederatzi adingaberi eta 27 senideri, bi probintzia-hiriburutan, bi udalerritan eta bi kokaleku mistoan (hiriburuan eta udalerrian).

Senideen bizilekua, beilatokia, hilerria, ospitalea, epaitegia, udaletxea eta Poliziaren bulegoak; horiek izan dira talde terapeutikoen esku-hartzearen kokalekuak. Esku-hartze horien bidez, adingabeen bigarren biktimizazioa murriztea ere lortu dute.



Indarkeriatik bizirik irteteko drogak erabiltzen dituzten emakumeentzako babes-inguruneak, “Metzineres”

Erakundea

Osasuna eta Komunitatea Fundazioa

Erakunde espezifikoak

Drogazaletasun, Genero eta Familien Arloa

Webgunea

<https://www.fsyc.org/>

Hartzaileak

Indarkeriatik bizirik irteteko droga kontsumitzen duten emakumeak:

- Etxerik gabekoak.
- Gazteak.
- Adineko helduak.
- Iritsi berriak.
- LGTBIQ kolektibokoak.
- Bizirik irauteko sexua izan dutenak edo izaten dutenak.
- Preso ohiak.
- Osasun fisiko edo mental txarra dutenak.
- Dibertsitate funtzionala dutenak.

Helburuen laburpena

Sarbide-oztopoak murriztuko dituen laguntza integrala ematea, arreta jasotzen duten emakumeak jarriz beren berreskuratze-prozesuaren muinean eta haien ahalduntzea eta osasun fisiko, emozional eta mentala hobetu dadila sustatuz; Arreta Sareetako kalitatezko baliabideen eskaintza areagotzea; emakumeak solaskide gisa posizionatzea beren egonkortze- eta berreskuratze-prozesuak baldintzatzen dituzten politika publikoak diseinatzean; eta droga-kontsumitzaileek jasaten duten bereizkeria murriztea, bereziki indarkeriatik bizirik irteteko egiten duten emakumeen kasuan.

Alderdi garrantzitsuak

2017an, Fundazioko Drogazaletasun, Genero eta Familien Arloaren bidez, abian jarri zen “Metzineres” programa, harrera egiten diena askotariko indarkeriak jasan dituzten emakumeei, hala haurtzaroan (eraso fisikoak, psikologikoak eta sexualak; bortxaketak; familiaren desegituraketa; indarkeria erakundeen aldetik; kriminalizazioa –judiziala eta poliziala–; LGTBIQfobia) nola helduaroan (artatutako kasuen % 70etan, bikoteak eragindako indarkeria).

“Metzineres” programaren xedea da emakumeentzat soilik diren espazioak sortzea, haiek jasandako kalteak murrizteko. Espazio horietan aintzat hartuko dira giza eskubideak eta genero-zeharkakotasuna, eta aurre egingo zaie aurreiritziei, estigmari eta bereizkeriari”, adierazi du programaren zuzendari Aura Roig Fortezak.

Programa hori aitzindaria da halako ezaugarriak dituen emakumeentzako baliabide integral bat eraikitzen Katalunian. Baliabide horren ezaugarri nagusia da erantzun integrala, indibidualizatua eta erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzeko modukoa ematen duela, esku hartzeko eredu berritzaile baten bidez. Zehazki, *babesa emateko* hiru *ingurunetan* ematen du zerbitzu:

- DE MOMENTO. Zaintzeko, prestatzeko eta berreskuratzeko ingurunea, hasi autozainketatik eta elkartasunera arte. Hemen harrera egiten zaie programaren hartzaile guztiei, zeinaren bidez emakumeen eragin tekniko eta politikoa ere lantzen baita.
- LA OSADA. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeei lanerako aukerak emateko ingurune produktiboa.
- LA CUBIERTA. Etxerik ez duten emakumeei etxebizitza bat bermatzea xede duen bizitegi-ingurunea. Hiru modalitate daude:
 - Premiazko harrera, larrialdi-kasu zehatzetarako.
 - Espazio iragankorra, arreta soziosanitarioa behar duten eta eguneko 24 orduetan langile baten laguntza izan behar duten emakumeentzat.
 - Autonomia-pisuak, laguntza profesionalarekin egoerak hala eskatzen duenean.



Programaren indarguneen artean aipatzekoa da arreta-sare desberdinek ematen dituzten baliabide eta zerbitzu ulerkor, egoki, irisgarri eta kalitatezkoak areagotu egin direla. Aipatzekoak dira, halaber, indarkeriatik bizirik irauteko drogak erabiltzen dituzten emakumeei buruzko informazioa sortzean eta kudeatzean duten zuzentasuna, biktimen konfidentziasuna eta anonimotasuna errespetatzen dituzten ikerketa-prozedura kooperatiboak erabiliz.

Balantzea egitean, “Metzineres” programaren zuzendariak arreta berezia ematen dio programaren bidez arreta jaso duten emakumeen pribatutasunerako eskubidea errespetatzeari. Emakume horiek ondo egon daitezen, ez zaie informazio pribatuari buruzko hasierako elkarrizketarik egiten (kontsumo-praktikak, osasun-egoera fisiko eta mentala, harreman sozialak, familiakoak edo sentimentalak...). Parte-hartzaileek beren kabuz kontaktzen dizkiete beren bizipenak taldekideei, egokituz jotzen dutenean.

Horregatik, gutxi gorabehera esanda, kalteberatasun-faktoreak dituzten 20 eta 60 urte arteko 100 emakume baino gehiagori lagundu zaie. Faktore horiek dira etxebizitzarik ez izatea, osasun mentaleko arazoak diagnostikatuta edukitzea, espetxean egon izana, GIBaren eta C hepatitisaren eramaile izatea, migratzailea izatea eta administrazio-egoera irregularrean egotea, prostituitzea, LGTBIQ kolektibokoa izatea, etnia jakin batekoa izatea eta dibertsitate funtzionala edukitzea. Zehazki, baliabide honek 1.833 aldiz lagundu die emakume horiei: 624 aldiz 2017ko ekainetik abendura bitartean, eta 1.209 aldiz 2018ko urtarriletik otsailera. Acogida de urgencia, para casos de emergencia puntual.



Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei lan-munduan sartzen laguntzeko gidaliburu interaktiboa

Erakundea

Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutua

Webgunea

<http://www.inmujer.gob.es/servRecursos/formacion/Pymes/Introduccion.htm>

Hartzaileak

Langileak hautatzeaz eta kontratatzeaz arduratzen direnak.
Enpresak.

Helburuak

Enpresetan langileak hautatzeaz eta kontratatzeaz arduratzen direnei gerturatzeko genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak lan-munduan sartzeko prozesua; biktimei buruzko estereotipoak eta sinesmen faltsuak haustea, eta enpresei biktimak kontratatzeko erraztasunak ematea; eta biktimei lan-munduan sartzeko eskuragarri dituzten baliabideak eta laguntza-bideak jakinaraztea.

Alderdi garrantzitsuak

Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutuak "Indarkeriarik gabeko gizarte baten aldeko enpresak" ekimena jarri zuen abian 2012an, Genero Indarkeriaren arloko Gobernu Ordezkaritzarekin lankidetzan. Bada, ekimen horren barnean argitaratu zen gidaliburua Institutuaren webgunean, Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Estatu Idazkaritzaren bidez.

Ekimen horren bidez lankidetzeta-hitzarmenak egin ziren jarduera-sektore desberdinetako Estatuko enpresekin. Lankidetzeta horien bidez hiru ikuspegi landu nahi dira: genero-indarkeriaren arloko sentsibilizazioa sustatzea, biktima diren emakumeen gizarteko eta laneko integrazioa sustatzea eta haien mugikortasun geografikoa ahalbidetzea, egokitzen jotzen denean.

Genero-indarkeriarik gabeko gizarte baten aldeko enpresen sarean 67 erakunde zeuden 2017ko urrian. Enpresa horiek guztiak sentsibilizatzeko eta gizartean eta lan-munduan sartzen laguntzeko jarduketak

gauzatzeko konpromisoa hartu dute.

Sare hori lankidetzan aritzen da Gurutze Gorriarekin eta Integra Fundazioarekin. Erakunde horiek arduratzen dira enpresen, biktima diren emakumeen eta hartzaileei arreta ematen dieten beste elkarte batzuen arteko lan-bitartekaritza egiteaz.

2016an argitaratu zen gidaliburu interaktiboa, biktimei lan-munduan sartzeko lagundu nahi zieten enpresentzat. Tresna honek lan munduan sartzeko prozesu horri buruzko argibideak ematen dizkie, lana indarkeriaren zirkulutik irteteko eta autonomiarako giltzarri gisa hartuta. Horrez gain, zenbait enpresek izandako esperientziak ere aipatzen ditu, eredu gisa.



Esperientzia honetan egindako aurkikuntza garrantzitsu gisa, argitalpenak biktima izan diren emakumeak ez kontratatzea dakarten aurreiritziak, estereotipoak eta sinesmenak desagiten ditu:

- Tratu txarren emalea lantokian agertu eta indarkeria-egoera bat sortzeko beldurra.
- Emakume ahulak eta psikologikoki hauskorra izateko beldurra, jasandako tratu txarreatatik.
- Beren lanpostuan errendimendu txikia emateko beldurra, tratu txarren ondorioengatik.
- Emakume horiek desberdin tratatu behar izatearen eta, ondorioz, haiekin alderatuta gainerako langileei tratu bidegabea ematearen beldurra.

2016ko eta 2017ko datuak bildu dira, gidaliburua kontsultatu duten eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak kontratatu dituzten enpresariei eta hautaketa- eta kontratazio-arduradunei buruzkoak (Genero-indarkeriarik gabeko gizarte baten aldeko enpresen sarekoak). Datuon arabera, 2016an 861 kontratu egin ziren ekimen honen barnean, eta hurrengo urtean 431 gehiago (1.292 kontratu).



“Actúa: atención sanitaria al maltrato” mugikorrerako aplikazioa

Erakundea

Andaluziako Junta

Webgunea

<http://www.juntadeandalucia.es/salud/sites/ksalud/portal/index.jsp>

Hartzaileak

Osasunaren arloko langileak.

Helburuak

Orokorra

Osasunaren arloko langileen lana erraztea, jarduketa-protokoloari jarraituz.

Zehatzak

Protokoloa bilatu behar ez izatea, bertako edukirako sarbidea erraztuz; osasunaren arloko langileei prestakuntza ematea; osasunaren arloko jarduketari buruzko zalantzak argitzea; langileen jarduketak homogeneizatzea; kasu bakoitzean “nola jardun” adieraztea; eta Andaluziako eremu desberdinetako osasunaren arloko eta osasunaz kanpoko baliabideak erabilgarri jartzea, behar bezala.

Alderdi garrantzitsuak

2017ko lehen hiruhilekoan, Osasun Sailak jendaurrean aurkeztu zuen ekimen hau, Emakumeenganako Tratu Txarren aurkako Prestakuntzaren Andaluziako Sareko (Formma sarea) familia-mediku egoiliarren komunitateak diseinatua, Kordobako Ikerketa Biomedikorako Maimónides Institutuaren (IMIBIC) eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Kordobako Plataformaren laguntzarekin.



Ekimenaren bereizgarri nagusia da genero-indarkeriari berariaz aurre egiteko estatuko lehen osasun-aplikazio dela. Zehatza eta erraz erabiltzeko modukoa da osasunaren arloko langileentzat, hala lehen mailako arretan nola ospitaleetan.

Aplikazioa doan deskarga daiteke *Android* eta *iOS* gailuetan, eta modu grafiko, intuitibo eta errazean laburtzen du Genero Indarkeriaren aurkako Osasun Jarduketarako Andaluziako Protokoloa, Andaluziako Juntako Osasun Sailak 2015ean egina.

Aplikazioan askotariko informazioa ikus daiteke: jarduketa-metodoak, erasoen susmoa sor dezaketen aldagaiak, genero-indarkeriaren aurkako baliabideak, sexu-indarkeriaren detekzioa... Informazio praktikoa hori guztia hainbat ataletan banatuta dago; besteak beste:

- “Cómo debo actuar” (Zer egin behar dut): atal honetan, kontsultan (larrialdietakoa edo ohikoa) tratu txarrak jasaten dituen emakume bati hiru galdera erraz egin ondoren, urratsez urrats adierazten da zer egin behar duten medikuek, muturreko arriskua dagoen edo egon daitekeen kontuan hartuta.
- “Indicadores de Sospecha” (Susmoaren adierazleak): atal honetan indarkeria jasaten duen emakume batek izan ditzakeen sintomak daude jasota, kontsultan ikus daitezkeenak.
- “Parte judicial” (Parte judiziala): hemen azaltzen da nola bete guardiako epaitegian aurkeztu beharreko parteak.
- “Recursos” (Baliabideak): atal honetan ikus daitezke Andaluziako Juntak tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntza emateko eta segimendua egiteko eskaintzen dituen baliabide guztiak; horrez gain, erkidegoko Emakumearentzako Informazio Zentro guztiak zehaztuta dituen mapa bat ere ikus daiteke.
- “Agresiones sexuales” (Sexu-erasoak): atal honetan azaltzen da nola artatu sexu-abusuak jasan ondoren larrialdi-egoeran dagoen emakume bat; bertan zehazten da nola egin behar duten miaketa eta nola hartu behar dituzten laginak ginekologiako eta auzitegi-medikuntzako arloek, elkarrekin.
- “Hijas e hijos de mujeres en situación de maltrato” (Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen seme-alabak): kontsultan adingabeei eman beharreko arretari eta egin beharreko segimenduari buruzko atala.
- Eta, azkenik, “Mujeres en situaciones vulnerables” eta “Víctimas de trata” atalak ditugu, egoera kalteberan dauden eta salerosketaren biktima izan diren emakumeei buruzkoak; izan ere, emakume horiek arreta eta baliabide bereziak behar dituzte.

Aplikazioan 1.752 deskarga erregistratu dira guztira (gutxi gorabehera, 500etik gora *iOS*erako eta 1.200 inguru *Android*erako). Deskargak askotariko osasun-zerbitzuetatik egin dira, eta aplikazioa lehen mailako arretan nahiz ospitaleko arretan erabili da, ez Andaluzian soilik, baita beste autonomia-erkidego batzuetan ere.



“SAH Jóvenes” programa

Erakundea

Bartzelonako Udala

Webgunea

<http://ajuntament.barcelona.cat/es/>

Hartzaileak

Bikotean, familian edo komunitatean (esaterako, eskola-jazarpena) indarkeria matxista jasanarazi duten nerabe eta gazteak, irizpide hauek betetzen dituztenak:

- 12 eta 21 urte artean izatea.
- Bartzelona hirian bizitzea, lan egitea edo ikastea.
- Eragiten duten indarkeria-egoera aldatzeko eta kaltea erreparatzeko nahia izatea, beren borondatez.

Helburua

Maskulinitateen berrikuspen kritikoa sustatzea; harreman osasungarriagoak, errespetuzkoagoak eta berdintasunean oinarrituak eraikitzen laguntzea; eta harreman kaltegarriek luzaroan iraun dezatela saihestea. Horretarako, hainbat bide erabiliko dira:

- Adingabeek eta nerabeek harreman afektiboekin lotuta dituzten kezkak entzutea, iritzi edo aholkurik eman gabe.
- Harreman afektiboetan dituzten zailtasunak edo zalantzak argitzen laguntzea.
- Laguntza eta tresnak ematea harreman positibo eta osasungarriagoak izan ditzaten.

Alderdi garrantzitsuak

SAH Jóvenes programa 2014an jarri zuen abian Feminismoen eta LGBTBIren Zuzendaritzak (Indarkeria Matxistagatikoko Arreta eta Harrera Saila), indarkeria matxista jasaten duten nerabeekin egiten den esku-hartzearen (SARA Joven) osagarri gisa. Programa honen xedea da bikote-harremanetako genero-indarkeria modu integralean lantzea adin goiztiarretik.

Gazteek harreman positiboak eta indarkeriarik gabekoak izan ditzaten, eta haien ongizatea eta gogobetetasuna areagotzeko asmoz, "SAH Jóvenes" programak arreta malguko zerbitzu bat eskaintzen du, esperientziaren hartzaileei ahalbidetzen diena beren gertuko inguruneetan arreta jasotzea, hala nola eskoletan, gazteentzako informazio-puntuetan eta gazteentzako soilik diren espazioetan.

Hezkuntzaren edo gazteriaren arloko eragileek programara bideratzen dituzte kasuak. Han, gaztearekiko lehen kontakua kudeatzen da eta gazteak, lan egiteko eta laguntzeko konpromisoa onartu ondoren, erabakitzen du zerbitzura atxiki nahi duen edo ez.

Lan- eta arreta-metodologiak ahalbidetzen du gazteen ingurunean erabilgarri dauden eragile eta zerbitzuen saretik lan egitea, haiek baliabidearekin errazago bat egiteko eta proiektuari lotutako gainerako langileekin egin beharreko lana errazteko. Horrek guztiak egoera modu integralean lantzeko aukera ematen du.



Laburbilduz, programa hau eredugarria da gidaliburu honen bidez ezagutzera emateko, honako arrazoi hauengatik: programaren hartzaileen zehaztasuna, bertako kideen borondatezko lana, erabiltzen den metodologia, hainbat testuingurutako eragileek (hezkuntza, laguntza, informazioa, aisialdia...) gazteei eskaintzen dieten esku-hartze integrala, gazteen indarkeriazko jarrerak eraldatzeko aukeren bilaketa eta proiektuaren egonkortasuna denboran zehar.

Programak martxan daramatzen lau urteetan praktika arrakasta izaten ari da banakako arreta-dinamiketan, gazteak asko inplikatzeko baitira beren prozesuetan; taldeko arretan, berriz, ahaleginak areagotu behar dira, gazteak taldera atxikitzeko zailtasun handiagoak ikusten baitira.



“VioPet” Indarkeriaren Biktima diren Animaliak Hartzeko Programa

Erakundeak

Gizaki eta Animalianganako Indarkeria Aztertzeke Taldea (GEVHA)
Animalianganako Indarkeriaren Behatokia

Webgunea

<http://viopet.org/>

Hartzaileak

Familiaren esparruan genero-indarkeria jasaten duten emakumeak.
Familiaren esparruan indarkeria jasaten duten etxeko animaliak.

Helburuak

Familiaren esparruko indarkeriaren biktima diren etxeko animaliak hartzea, aldi baterako edo behin betiko.

Alderdi garrantzitsuak

2015etik martxan dago Katalunian “VioPet”, Estatu Batuetako SAF-T programaren ordezkari. Estatu-mailan eta Latinoamerikan ezarri den mota honetako lehen proiektua da, eta familiako indarkeriaren biktimei aukera ematen die beren etxeko animaliak harrera-etxeetan edukitzeko.

Hainbat ikerketa egin dira gai honen inguruan; hasiera batean Wisconsin, Utah eta Hego Carolinan, eta gero beste bat, honako hauek erreferentzia gisa hartzen dituena: Terrassa-Sant Cugat-Valldoreixeko osasun-zerbitzuak, “Violencia doméstica y maltrato a animales en España: Investigación conjunta de profesionales sanitarios y cuerpos policiales, 2014” (egile asko) ikerketa, Dompert ikerketa, Europa eta Latinoamerika. Ikerketa horien guztien arabera, bikote barruan gertatzen den indarkeriak lotura dauka animaliei eragindako krudelkeriarekin. Kasu horietan, animaliak gaizki tratatzen dituztenak izan daitezke erasotzaileak edo, batzuetan, haien seme-alabak.

Familiaren gaineko boterea eta kontrola erakustea, biktima eta haren seme-alabak isolatzea, independentzia- eta autodeterminazio-ekintzak zigortzea, arreta jasotzeko lehia desagerraraztea, izua

betikotzea, biktimari ihes egin dezala galaraztea edo itzularaztea... Ekintza horiek guztiek ekartzen dute tratu txarren emaileek indarkeria jasanaraztea maskotei.

Animaliak babesteko neurri gisa, AEBko 24 jurisdikziotan animaliak sartu dira babes-aginduetan.

Konfidentzialtasuna premisatzat hartuta, "VioPet" programak maskotak beste etxe batzuetan hartzeko prozesua kudeatzen du. Etxe horietan, haien segurtasuna eta ongizatea bermatzen da, eta gizaki-animalia loturari eusten zaio, bereizketak dakarren estresa saiheste aldera.

SAF-T eta VioPet-ek harrera egin aurreko zeinbait gomendio adostu dituzte:

- Lagunei, senideei eta ingurukoei galdetzea ea animalia zainduko luketen harrera-etxe batean sartuz gero.
- Galdetzea ea harrera-etxean animaliak sartzen uzten duten. Animaliak babesteko tokiko elkarteekin hitzarmenik egon ezean, www.animalsandfamilies.org eta viopet.org webguneak kontsultatzea, maskota bertan jaso dezaten.
- Larrialdietarako poltsa bat prestatzea beharrezko agiri eta materialekin (albaitaritza-erregistroak, mikrotxipari buruzko informazioa, lepokoak, uhalak, identifikazio-plakak botikak...).
- Katuentzat, larrialdietarako poltsa sartzea kaiola eramangarriaren barruan.
- Larrialdietarako poltsa leku seguru batean gordetzea (lagunen edo senideen etxea).
- Animalia biktimaren izenean ez badago, haren tutoretza edo babesteko aginduan sartzeko eskatzea.



Ekimen honen indarguneak dira animalianaganako tratu txarreko sentsibilizazioa, genero-indarkeriaren biktimaren eta haren maskotaren segurtasuna bermatzeko printzipioa, biktimizazio instituzionalaren murrizketa eta gizaki-animalia loturaren iraunkortasuna, bi biktimen osatze-prozesua errazten duena.

Esperientzia espero zena baino hobea izaten ari da harrerari eta eskariari dagokionez. Horren adierazgarri da lau udalerritan jarri dela abian (Arrecife, Ripollet, Sant Cugat eta Zaragoza), hainbat udaltzaingotako protokoloetan txertatu dela (PL Polinyà, Pl Castelló, GU Badalona, Pl Fuenlabrada eta Pl Arrecife) eta lankidetzaz ezarri dela hainbat polizia-kidegorekin: Mossos d'Esquadra, Guardia Zibila, Espainiako Polizia Nazionalea eta Agents Rurals.

Era berean, hainbat emakumek programarekiko interesa agertu dute, eta harremanetan jarri dira programako bitartekariekin, FCCekin, Gurutze Gorriarekin eta emakumeentzako harrera-baliabideekin.

Animalianaganako Indarkeriaren Behatokiko zuzendari Núria Querol i Viñasen iritziz, zerbitzu hori txertatu beharko litzateke indarkeriaren biktimei arreta emateko protokolo guztietan; izan ere, uste du animalianaganako tratu txarrak protokoloetan jaso behar direla, arriskuaren adierazle eta balorazio-tresna gisa.



“Perro de Asistencia Judicial” programa

Erakundea

Justizia Saila (Kataluniako Generalitatea)

Webgunea

<http://web.gencat.cat/>

Hartzaileak

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.
Sexu-askatasunaren kontrako delituen biktima diren emakumeak.

Helburuak

Proiektu pilotuaren helburua

“Perro de Asistencia Judicial (Gos d’Assistència Judicial, GA)” programak genero-indarkeriaren biktimen eta sexu-askatasunaren kontrako delituen biktimen antsietate- eta estres-mailetan duen eragina ebaluatzea, epaiketa egin aurreko eta ondorengo uneetan.

Helburu terapeutikoa

Biktimen antsietate- eta estres-sintomak murriztea, egintza judizialari ahalik eta baldintza psikologiko onenetan aurre egiteko.

Alderdi garrantzitsuak

2017ko azken hiruhilekoan proiektu pilotu hau egin zen, Tarragonako barruti judizialeko Delituaren Biktimarentzako Arreta Bulegoak gauzatzen duen ahozko epaiketako ekitaldirako laguntza-programaren barruan. Horretarako, 20 emakumeko lagina erabili zen; horietako hamarrek talde terapeutikoan hartu zuten parte eta beste hamarrek kontrol taldean.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Affinity Fundazioa Animaliak eta Osasuna Katedrak eta Affinity Fundazioak hartu zuten parte “Perro de Asistencia Judicial” programaren diseinuan, eta horren aurrekari gisa nazioarteko zenbait kasu aztertu dira, zeinetan txakurrak erabili baitira egintza judizialetan biktimei

laguntzeko, nagusiki adingabeei, desgaitasuna dutenei eta genero-indarkeriaren biktimei.



Tarragonako Delituaren Biktimarentzako Arreta Bulegoko koordinatzaile Eva Bourmanen arabera, programa honen indarguneak dira esperientzia berria dela Tarragonako sistema judizialean. Bestetik, txakurrak Bulegoko talde profesionalarekin, langile judizialekin eta biktimekin duen elkarrekintza ezin hobea goraiatzen du.

Esperientziari amaiera emateko, egiaztatu zen programa pilotu horretan beren borondatez parte hartu zuten boluntarioek eskerrak eman zituztela eta lasaitua hartu izana adierazi zutela; hain zuzen, esperientzia lagungarria iruditu zitzaien "gertakari oso traumatikoak gogoratu behar izategatik berriro biktima bihurtzen dituen egintza judizial bati aurre egiteko", adierazi zuen Bourmanek.

Hortik ondorioztatu da ahozko epaiketaren egintzan laguntzeko programan animaliek parte hartzeak indartu egiten dituela programak berezkoak dituen eragin terapeutikoak. Aintzat hartu behar da – kontuan izanda talde terapeutikoa osatzen zuten biktimak aurretik prestatuta zeudela golden retrieverren laguntza izateko, txakurren bat zutelako beren zaintzapean edo, oro har, animalia horiek gustatzen zitzaizkielako– epaiketa bukatzean uste izatea txakurra zain egongo zela pizgarri izan zela deklarazio arin bat bermatzeko eta ikustaldi juridikoan etenaldiak saihesteko.



Horrenbestez, frogatuta gelditu zen animalien eta biktimen arteko elkarrekintzak biktimen antsietate- eta estres-maila murrizten laguntzen duela, baita haien egoera fisiko, emozional eta mentala hobetzen, haien autoestimua eta autopertzepzioa handitzen eta haien konfiantza eta segurtasuna areagotzen ere, berretsi du Affinity Fundazioak⁹.

⁹ Hemen: <http://www.fundacion-affinity.org/blog/fundacion-affinity-lleva-por-primera-vez-perros-los-juzgados-para-ayudar-las-victimas-de>, 2017/10/24.

III ARRETA

3.2. Profesionalentzako arreta



Genero-indarkeria egoeretan lan egiten duten interpreteentzako prebentzio- eta autolaguntza-estrategiak

Erakundea

Speak Out for Support (SOS-VICS):
Vigoko Unibertsitatea (Koordinatzailea)
La Laguna Unibertsitatea
Alcaláko Unibertsitatea
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
Vic-eko Unibertsitatea
Castellóko Jaume I Unibertsitatea
Granadako Unibertsitatea
Alacanteko Unibertsitatea
Salamancako Unibertsitatea

Webgunea

<http://sosvics.eintegra.es/>

Hartzaileak

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei itzulpenak eta interpretazioak egiten aritzen diren profesionalak.

Helburuak

Genero-indarkeriaren emakume biktimekin lan egiten duten itzulpengintzako eta interpretazioko profesionalentzat erabilgarriak izan daitezkeen teknika batzuk azaltzea.

Alderdi garrantzitsuak

2012-2014 aldirako SOS-VICS (Speak Out for Support- UST/2011/JPEN/2912) proiektua abiarazi zen Europar Batasuneko Zigor arloko Justizia Programak eta bederatzi unibertsitate bazkideek batera finantzatua, eta hori bukatu zenean, 2014tik aurrera, webgune batean jaso ziren genero-indarkeria egoeretan interpreteentzako lagungarria izan daitezkeen prestakuntza-materialak, egitasmoaren emaitzetatik ateratakoak.

Hala, dokumentuak kontsultatu nahi dituzten itzulpengintzako eta interpretazioko profesionalak proposamen didaktikoen *corpus* bat aurkituko dute, lau arlotan sailkatuta: poliziala, judiziala, medikoa eta psikosoziala.

SOS-VICSek estrategia zehatz batzuk proposatzen dizkiete genero-indarkeria egoeretan dauden emakume biktimei itzultzen eta interpretatzen dietenei, beren eginkizunetan izan ditzaketen zailtasunei aurre egiteko, eta estrategia horiei erreparatuko diegu gidaliburu honetan. Zailtasun gehienak ez dira soilik interpretearen eta biktimari laguntzen dioten beste kolektibo profesionalen arteko harremanei lotutakoak, baizik eta baita interpretazio-saioretan sortzen den tentsio emozionala eta interpreteak izan ditzakeen estresa, pentsamendu negatiboa eta neke profesionalaren sindromeari lotuak ere (*burnout*).

Itzultzaile eta interpreteei oztopo horiei aurre egiten laguntzeko, prebentzioari lotutako lau estrategia praktikatzeko gomendatzen da:

- Asertibitatean entrenatzea.
Egokia da bi diziplinetako profesionalen eta biktimen arretan esku hartzen duten gainerako ekipoen artean zein profesionalen eta biktimaren artean ezartzen diren harremanetarako.
- Enpatia hobetzea.
Horretarako, ezinbestekoa da itzultzaile eta interpreteen lanean genero-ikuspegia txertatzea.
- Estresa kontrolatzeko teknikak.
Estresak eragiten dituen hiru erreakzio psikologikoei dagozkien afekzioekin aurre egiteko, proposatzen da arnasketa teknikak erabiltzea eta erabateko arretan (*mindfulness*) entrenatzea. Hauek dira hiru erreakzio motak: emozionala (interpretatzen duenak tentsioa eta apatia erakusten du), kognitiboa (kontzentrazio eta arreta falta eragiten du) eta jokabideari dagokiona (beste pertsona batzuekiko elkarrekintzan oinarritutako lan bat oztopatzea).
- Teknika kognitiboak.
Psikoterapiak pentsamendu negatiboak eta ideia irrazionalak urruntzeko erabiltzen dituen tresnak dira: pentsamendua geldiaraztea, pentsamenduak distraitzea eta autoinstrukzioak.

Taktika horiek aplikatuz, interpretazio-lanaren kalitatea eta eraginkortasuna bermatu nahi da, eta biktimei itzultzen eta interpretatzen dieten pertsonen osasun psikofisikoa zaindu.



Estrategien aurkikuntza gisa, nabarmendu nahi dugu esperientziak ikasketetan, ikerketetan eta prebentzioan gutxi tratatu den alderdi bat jorratzen duela: genero-indarkeriaren kontra zerbitzuak ematen dituzten kolektibo baten autozaintza. Horrez gain, aipagarria da SOS-VICSek eginiko ikerketaren zorrotasuna, hor identifikatu baitziren material egoki hauek egiteko eta prestakuntzarako eskaera nagusiak.

Hemen jasotzen diren prebentzio-estrategiak indarrean daude erabat, eta aplikatu egiten dituzte bai estatuko eta bai autonomia-erkidegoetako profesionalek eta interpreteei prestakuntza ematen dietenek.

Epe laburrera begira, badirudi Europak berriro emango duela babesa SOS-VICSek taldeak Europako Batzordeari bidalitako eskaera gauzatzen badu, zeinetan eskatzen baitzen genero-indarkerian diziplina anitzeko lankidetzak hobetzeari buruzko proiektu bati ekitea.



JABETUZ

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimek artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programa

Erakundea

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Webgunea

<http://www.emakunde.euskadi.eus/hasiera/>

Hartzaileak

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalak, beren zereginak erakunde hauetan gauzatzen dituztenak:

- Arartekoa.
- Eusko Jaurlaritza (Osasun, Justizia, Segurtasun, Gizarte Bazterkeria, Etxebizitza eta Hezkuntza Sailak).
- Erakunde publikoak (Osakidetza, Lanbide, Ertzaintza, Hezkuntzako Ikuskatzailetza eta Berritzeguneak).
- Talde psikosozial judizialak.
- Gipuzkoako emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Eudel.
- Udalak (oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileak eta Berdintasun teknikariak).
- Udaltzaingoa.
- Legelarien Euskal Kontseilua.
- EAEko Medikuen Kontseilua.

Helburuen laburpena

Nagusia edo orokorra

Esku-hartze profesionalerako irizpideak homogeneizatzen laguntzen duen baterako ikuspegi adostu bat sustatzea.

Zehatzak

Esku-hartze esparru desberdinetako profesionalei prestakuntza ematea, emakumeenganako indarkeriaren biktimetzako arreta hobetzeko; biktimen ahalduntzea sustatzea, indarkeriarik gabeko bizitza lortzen laguntzeko funtsezko estrategia gisa; eta informazioa trukatzeko eta koordinazioa hobetzeko aukera emango duen profesionalen sare bat sustatzea.

Alderdi garrantzitsuak

2015etik, Emakundeko Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Arloak *online* prestakuntzarako programa hau dauka abian, honako hauen esparruan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legea (53. artikulua, administrazio publikoetan zerbitzu ematen duten langileen prestakuntzari buruzkoa) eta Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa, 2009 (laugarren xedapeneko b atala, akordioa sinatzen duten arloetako profesionalen jarduketarekin lotutako prestakuntza-planak egin eta abian jartzeari buruzkoa).

Gaikuntzaren egokitasuna jasota dago, halaber, "II. txostena: Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak" dokumentuan (2013, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia), baita Emakundek eginiko zenbait dokumentutan ere: Euskal Autonomia Erkideko baliabideei buruzko ebaluazioak, II. Akordioaren ebaluazioaren eta segimenduaren urteko txostenak, "Prestakuntza-eredua, indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzen diharduten kolektibo profesionalentzat" ikerlana.

Jabetuz programaren edukiak bi ikastarotan banatuta daude:

- Oinarrizko ikastaroa, gaikako bi bloketan banatua: sarrerako modulua (unitate didaktikoak: "Esku-hartzearen irismena" eta "Harrera") eta oinarrizko modulua (unitate didaktikoak: "Berdintasun eza eta emakumeen aurkako indarkeria", "Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko araudia", "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendua" eta "Emakumeen ahalduntze pertsonala bultzatzea eta laguntzea, profesionalen esku-hartzearen zati moduan").
- Ikastaro aurreratua: bertan, hainbat gai sakontzen dira, hala nola "Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen seme-alabak" edo "Dibertsitate funtzionala". Ikastaro honen ezaugarri nagusia da malgua dela eta, horrenbestez, beste gai batzuk landu daitezkeela araudiak aldatzen diren eta prestakuntza-behar berriak detektatzen diren heinean.



Ekimen honen elementu bereizgarrien artean, aipatzekoa da prestakuntza (giza eskubideen eta generoaren ikuspegitik emandakoa) emakumeak ahalduntzera bideratzen dela, eta arreta hobetzea xede duen esku-hartze integral eta praktiko bat duela oinarri. Era berean, arretaren arloko hainbat profesionalek foro berean parte hartzeak aukera ematen du ikuspegi bateragarri edo baztertzaila desberdinak ezagutzea.

Ikasleen arabera, hauek dira balorazio onena jaso duten elementuak: irakaskuntzaz arduratu diren adituen profesionaltasuna, gaien alderdi praktikoak, foroetako parte-hartzea, profesionalen arteko koordinazioaren hobekuntza, biktimekin esku hartzeko eskuratutako tresnak eta ahalduntzeari buruzko unitateak. 2018ko martxoan, prestakuntza-programaren zazpigarren edizioa jarri zen abian, eta parte-hartzaileen kopuruak etengabe egin du gora duela hiru urte inauguratu zenetik.

Horren adierazgarri da, esaterako, 2018ko ikastaroetan izena emateko epearen lehen hiru asteetan 196 eskaera erregistratu direla lehen hiruhilekoko oinarritzko ikastarorako (100 plaza dira guztira).



DVCI: Domestic Violence Coordinating Strategic Intervention proiektua (Etxeko indarkeria, esku-hartze estrategikoa koordinatuz)

Erakundea

Familia eta Aukera Berdintasuneko Saila (Murtziako Eskualdea)

Webgunea

<https://igualdadyviolenciadegenero.carm.es>

Hartzaileak

Arduradun estrategiko eta operatiboak:

- Politika publikoek eta horien kudeaketaz arduratzen diren pertsonak.
- Genero-indarkeriaren arloko esku-hartzeaz eta kudeaketaz arduratzen diren pertsonak (eskualdeetako eta tokian tokiko erakunde publikoak, justizia, polizia-indarrak, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...).

Genero-indarkeriaren aurkako arlo espezializatu hauetan lan egiten duten lehen lerroko profesionalak:

- Gizarte-lana.
- Psikologia.
- Lege-aholkularitza.
- Hezkuntza.
- Osasuna.
- Polizia.
- Gizarte-zerbitzuak.
- Kasuen kudeaketaz eta koordinazioaz arduratzen diren beste arlo batzuk.

Helburuen laburpena

Genero-indarkeriaren kontrako koordinazioan lan egiten duten profesionalentzako funtsezko gaitasunen Europako curriculum bat gauzatzea eta praktika onak partekatzea; Espainian, Erresuma Batuan, Grezian eta Errumanian genero-indarkeriari erantzun koordinatu bat emateko curriculum nazional egokitu bat garatzea; lau herrialdeetako 160 profesionali prestakuntza espezializatu eta berritzailea kreditatzea; tokian tokiko, estatuko eta autonomia-erkidegoetako koordinazioan parte hartzen duten pertsonen gaitasunak hobetzeko beharrari buruzko sentsibilizazioa hobetzea.

Alderdi garrantzitsuak

Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Zuzendaritza Nagusia, Europako Batzordearekin batera finantzatuta (Erasmus+ programaren bidez) eta Londresko Kensington eta Chelsea barrutiak buru dituela, proiektu hau lantzen ari da 2016ko azarotik 2018ko azarora bitartean. Proiektuaren xedea da genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza ematea, denen arteko lankidetzaren bidez.

Ekimenean parte hartzen dute, hortaz, era horretako indarkeriaren aurka borroka egiteko ardura duten erakundeek. Komeni da Europako eta estatu-mailako curriculumak garatzea; horietan zehaztuko dira hala koordinazioaren estrategiaren eta eraginkortasunaren arduradunek nola genero-indarkeria mota guztien biktima diren emakumeei arreta ematen dieten arloetan lan egiten duten diziplinarako profesionalek justifikatu behar dituzten gaitasunak. Horrez gain, curriculumean zehaztuko da DVCI proiektuaren hartzailleek prestakuntza egokia jaso behar dutela biktimei ematen zaien zerbitzua hobetzeko.



Planifikazioko eta Prebentzio Programen Zerbitzuko soziologo Marina García Albertosek azaldu du jardueraren indarguneetako bat dela prestakuntza eman aurretik bazkide diren erakundeek irizpideak bateratzen dituztela. Horri gehitu behar zaizkio parte hartzen duten herrialdeen esperientzia desberdinak eta haien ikuspegietatik esku-hartze profesionala lantzeko askotariko moduak; izan ere, herrialde bakoitzak lan egiteko modu bat du, administrazio publikoa edo erakunde pribatua den. Ikuspegi horiek guztiak agerian jarriko dira ekainean Murtzian egiten den azken bileran.

Proiektuan parte hartzeko ikasleak hautatzeko prozesua egiteko, diziplina desberdinetako profesionalak izendatzeko eskatu zitzairen genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta integrala jorratzen duten hainbat erakunderi.

Ikastarora espero baino jende gehiago bertaratu da, eta oraindik ere jendea inskribatuta dago itxaron-zerrendetan. Agerian geratu da ikastaroaren eraginkortasuna, eta hori zor zaio, batetik, hizlariak erabilitako metodologiari (parte-hartzailea eta ideiak trukatzeko erraztasunak ematen dituen) eta, bestetik, ikasleen gogoari.

Ikastaroa bost modulutan banatuta dago (aurrez aurreko 30 ordu guztira), eta Murtziako Eskualdeko Administrazioako Prestakuntza eta Berrikuntza Eskolak homologatuta dago; horrenbestez, prestakuntza-plan ofizialean sartzen da eta ordu horiek lanordu gisa zenbatzen dira.

III ARRETA

3.3. Erakundeen arteko koordinazioa



“Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakunde jarduketaren inguruan hobetzeko gomendio eta proposamenen III. txostena” dokumentuaren azterketa eta hedapena

Erakundea

Ermuko Udala

Webgunea

http://www.ermua.es/eu_index.asp

Hartzaileak

Gizarte Zerbitzuen Alorra.

Hiritarren Segurtasunerako Alorra.

Ermua-Mallabia Oinarrizko Lanbide Heziketako (OLH) Ikastetxea.

Osasun-zentroa (Ermuko Anbulatorioa).

Helburuen laburpena

Orokorra

Parte hartzen duten tokiko arloek hobetzea emakume izateagatik bakarrik indarkeria jasaten duten Ermuko emakumeentzako -eta haien menpe dauden pertsonentzako- arreta.

Zehatza

Tartean diren langileak sentsibilizatzea, informatzea eta prestatzea lau ezagutza-adarren inguruan: ulertzea indarkeriak nola eragiten dien emakumeei, beste pertsona batzuei eta gizarteari, eta zer-nolako garrantzia duen gai hori modu profesionalean lantzeak; gaiari buruzko udal-politika ezagutzea, baita erabilgarri dauden baliabideak eta horiek eskuratzeko modua ere; ezagutzea eta praktikan

jartzea Ermuko "Erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. udal protokoloa, genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta hobea emateko" (2012) dokumentuan zehaztutako detekzio-bideak, arreta/bideraketak eta koordinazioa; ezagutzea eta praktikan jartzea, halaber, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak (Bizkaiko Foru Aldundia) eginiko Gomendioen III. txostenaren edukia.

Alderdi garrantzitsuak

2017an eta 2018an, Ermuko Berdintasun Alorrak zuzentzen du Bizkaiko Indarkeriaren Behatokiko lantalde eginiko Gomendioen III. txostena, 2017an argitaratua, ezagutarazteko prozesua. Erakundeen Arteko I. Protokoloaren koordinaziorako talde teknikoan parte hartzen duten pertsonak ere inplikazio aktiboa izan dute prozesu horretan, Udaleko Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Hiritarren Segurtasuna alorren ordezkarri gisa.

Ikuspegi integrala eta emakumeak ahalduzera bideratua eman zaio ekimenari, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei zuzendutako arretaren lanketa profesional eta diziplina anitzekoaren garrantzia du oinarri.

Informazio-topaketetan, Indarkeriaren Behatokia labur aurkeztu ostean (jarduera, funtzionamendua, sortzen duen dokumentazioa), III. txosteneko gomendioak azaltzen dira, kapitulu bakoitzean aipatzen diren esku hartzeko esparruen arabera banatuta (Prebentzioa, Errealitatearen ezagutza eta Arreta). Ondoren, amaitzeko, entzuleek eginiko galderei erantzuten zaie.

Ermuko Erakundeen arteko I. Protokoloa sinatu duten alorrekin, zehazki horretarako izendatutako teknikariek, egindako informazio- eta prestakuntza-saioetan, Behatokiaren jarduera ezagutarazi da kasu batzuetan eta lehendik zuten ezagutza sakondu beste batzuetan. Horrez gain, topaketak balagarriak izan dira aldi berean Gomendioen III. txostena gainetik ikusteko, alorren arteko eztabaida sustatuz zenbait gairen inguruan: zeharkakotasuna eta genero-ikuspegia txertatzea eguneroko lanean, datuen bilketa sistematizatzea eta datuen konfidentziasuna... Izan ere, gai horiek askotariko interpretazioak izan ditzakete.



Praktika arrakastatsua izan dadin, beharrezkoa da esku-hartzea integrala izatea, teknikariak inplikatzeko eta Berdintasun Alorrak ahalegina egitea erakundeek balora dezaten, batetik, Gomendioen III. txostena aztertzeko eta ezagutarazteko prozesua eta, bestetik, gomendio horiek praktikan jartzeko abian jarri duten prozesua. Balorazio horretan sartuko dira egindako lorpenak, gainditu behar izan dituzten oztopoak eta horiei emandako konponbideak.

Bi balorazioak Behatokiari helaraziko zaizkio, eta eskatuko zaio eginiko gomendioen gauzatze-maila ebaluatzeko tresnak emateko.



Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ematen zaien arretaren nazioarteko kalitate-estandarrik aztertze eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko programa: Indarkeria pairatzen duten emakume eta neskontzako oinarritzko zerbitzuen paketea (Nazio Batuak)

Erakundea

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Tartean diren erakundeak

Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko EAEko Erakundearen Arteko II. Akordioaren sinatzaileak, esparruka:

- Osasuna
- Polizia
- Esparru judiziala
- Abokatuen elkargoak
- Gizarte-zerbitzuak
- Hezkuntza

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei zerbitzu ematen dieten enpresak Erakunde zibilak; besteak beste:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen elkarteak
- Biktimen inguruko sentsibilizazioaren, prebentzioaren eta arretaren arloan lan egiten duten GKEak
- Mugimendu feminista
- Emakumeen elkarteak eta taldeak

Webgunea

<http://www.emakunde.euskadi.eus/hasiera/>

Hartzaileak

Genero-indarkeria jasan eta zerbitzu publikoen arreta jasotzen dutenak:

- Emakumeak.
- Neskak.

Helburu nagusien laburpena

Hausnartzea gaur egun emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei EAEko arreta-sistematik ematen zaien erantzunari buruz; nazioartean esku-hartze esparru bakoitzerako adostu diren gutxieneko estandarrei dagokienez hobetu behar diren alderdiak identifikatzea; esku-hartze esparru bakoitzerako hobekuntza-planak diseinatzea, martxan jartzea eta ebaluatzea; arreta-sistema oinarrizko prozedura batzuei jarraituz antolatzea; programa hau gauzatzean eskuratutako ikaskuntzak (metodologiak, prozedurak, tresnak...) transferitzea Erakunde Arteko Akordiora eta beste testuinguru batzuetara.

Alderdi garrantzitsuak

2016ko urritik, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arretarako gutxieneko kalitate- eta koordinazio-estandarrei buruzko mundu-mailako adostasun bat lortzeko asmoz, Emakundek "Indarkeria pairatzen duten emakume eta neskenentzako oinarrizko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Munduko Programa" izeneko nazioarteko proiektuan parte hartzen du. Programa hori NBE Emakumeak erakundeak, Garapenerako Nazio Batuen Programak eta Nazio Batuetako beste erakunde batzuek sustatzen dute.

Hauek zehaztu dira programaren barneko funtsezko zerbitzu eta esku-hartze esparru gisa: osasuna, zerbitzu judizial eta polizialak, gizarte-zerbitzuak eta gobernantzaren koordinazioa; eta sei printzipio nagusi ditu:

1. Eskubideetan oinarritutako ikuspegia.
2. Genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen sustapena.
3. Emakume eta nesken kultura eta adina aintzat hartzen dituen ikuspegia.
4. Biktimetan eta bizirik dirautenetan oinarritutako ikuspegia.
5. Segurtasuna lehenestean oinarritutako ikuspegia.
6. Erasotzaileek kontu emateko beharra.

Emakundek proiektu honetan parte hartuko du 2018. urtearen amaierara arte, "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ematen zaien arretaren nazioarteko kalitate-estandarrik aztertzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko programa"-rekin. Programa horren helburua da EAEko arreta-sisteman **probatzea** nazioartean adostutako estandarrik.



Hauek dira EAEko programaren indarguneetako batzuk: EAEn indarkeria jasaten duten emakume eta nesken arreta nazioartean kokatzea eta esku-hartze esparru desberdinetako operadoreei helaraztea; talde profesional guztiak programa baten barnean elkartzea, esku-hartze esparrua denentzat bera dela ikusarazteko (indarkeriaren biktima diren emakume eta neskak); eragileen sarea sendotzea eta, horren bidez, erakundeen eta esku-hartze esparruen arteko koordinazioa hobetzea; proiektu bakar batean biltzea biktimak ezagutzeko eta horien jarraipena egiteko martxan jarritako hobekuntzak.

Programa horrek esku-hartze esparru desberdinetako parte-hartzaileen (gizarte zibilarekin lan egiten duen talde bat barne) askotariko ikuspegiak eta esperientziak biltzen ditu. Zehazki, fasez fase, 74 profesional bildu ditu hausnarketa-prozesuaren hasierako jardunaldian (2016ko urria); 82 erronkak identifikatzeko lehen fasean; eta 67 identifikatutako erronkei erantzuna bilatzeko bigarren fasean. Gaur egun, hirugarren fasea lantzen ari dira, aurreko bietan eginiko lana itzultzea xede duena.

Balantze hau osatzeko, aipatzekoa da bertan parte hartu duten profesionalek komentario oso onak egin dituztela ekimenari buruz. Horrez gain, programaren eraginez areagotu egin dira arretaren kalitate-estandarrei lotuta eginiko ekintzak, eta profesionalen artean harremanak sortu dira, arreta-sistema hobe eta arinagoa lortzeko asmoz.

Baliabideak

Hona hemen argitalpenean zehar aipatutako ekimenen ondorioz sortu diren zenbait material. Baliagarriak izan daitezke ekimenak hobeto ezagutzeko. Tresna hauen zerrendaren hurrenkera bat dator gidaliburuan zehar izan duten agerpen-hurrenkerarekin.

IZENA	DESKARGATZEKO
Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakunde jarduketaren inguruan hobetzeko gomendio eta proposamenen III. txostena	http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/Gomendio_Txostena_III.pdf?hash=9c2acd7f017c72efde6da752dc2abb8e
“Detecta y actúa. Conoce: Guía de actuación contra la violencia sexual” argitalpena	http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/catalogo/doc/iam/2017/143553152.pdf
Emakumeen aurkako indarkeriaren mapa	http://www.bizkaia.eus/mapavm/eus/
“Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida” argitalpena	http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/30.gida.datu.pertsonalak.indarkeria.biktimak.pdf
Artikula: “Valoración forense del riesgo psicológico inicial de violencia de género”; egile asko, hemen: <i>Cuadernos de Medicina Forense 2016, 22. lib. (3-4): 64-72, Málaga, 2016 uzt./abe.</i>	http://scielo.isciii.es/pdf/cmfv/v22n3-4/1135-7606-cmf-22-3-4-00064.pdf
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei lan-munduan sartzen laguntzeko gidaliburu interaktiboa	http://www.inmujer.gob.es/servRecursos/formacion/Pymes/Introduccion.htm
Interpreteentzako prebentzio- eta autolaguntza-estrategiak: Speak Out for Support (SOS-VICS)	http://sosvics.eintegra.es/

Eranskina: Genero-indarkeriaren behatokiak

Atal honetan, komunitate-, estatu-, erkidego-, probintzia- eta unibertsitate-esparruetan aurki daitezkeen behatokiaren zerrenda bat egin dugu.

1. Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokia

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

<http://www.poderjudicial.es/eversuite/GetRecords?Template=cgpj/cgpj/principal.htm>

Marqués de la Ensenada 8

28004 Madril

Tel.: 917 006 284/6 277/6 278/5 932

Faxa: 917 006 350

Helbide elektronikoa: observatorio@cgpj.es

2. Emakumearenganako Indarkeriaren Espainiako Behatokia

Berdintasuneko Zuzendariordetza

Genero-indarkeriaren arloko Gobernuaren Ordezkaritza

<http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/instituciones/observatorioEstatual/home.htm>

Alcalá 37-4. sol

28071 Madril

Tel.: 915 243 290 / 915 243 298

Faxa: 915 243 598

Helbide elektronikoa: violencia-genero@migualdad.es

3. Genero Indarkeriaren Andaluziako Behatokia

Andaluziako Juntaren Berdintasun, Osasun eta Gizarte Politiketako Saila

<http://www.juntadeandalucia.es/iamindex.php/2013-08-08-10-31-21/observatorio-andaluz-de-violencia-de-genero>

Avd. de Hytasa 14

41006 Sevilla

Tel.: 955 006 300/ 048 000

Faxa: 955 006 328

Helbide elektronikoa: consulta.iam@juntadeandalucia.es

4. Emakumearenganako Indarkeriaren Aragoiko Behatokia

Aragoiko Gobernu

http://www.aragon.es/DepartamentosOrganismosPublicos/OOAA/InstitutoAragonesMujer/ci.OBSERVATORIO_VIOLENCIA_CONTRA_MUJER.detalleDepartamento

Santa Teresa de Jesús 30-32

50071 Zaragoza

Tel.: 976 716 720

Faxa: 976 716 721

Helbide elektronikoa: observatorioviolencia@aragon.es

5. Emakumeenganako Indarkeriaren Asturiasko Behatokia

Asturiasko Emakumearen Institutua

<http://institutoasturianodelamujer.com/iam/violencia-de-genero/observatorio-violencia-de-genero-del-principado-de-asturias/>

Eduardo Herrera "Herrerita", zk. g.-3. sol

33006 Oviedo

Tel.: 985 962 010

Faxa: 985 962 013

Helbide elektronikoa: institutoasturianodelamujer@asturias.org

6. Observatorio Galego da Violencia de Xénero

Secretaría Xeral da Igualdade

Vicepresidencia e Consellería de Presidencia, AAPP e Xustiza

<http://igualdade.xunta.es/>

Complejo administrativo San Lázaro zk.g

15781 Santiago de Compostela

Tel.: 981 957 699/ 677

Faxa: 981 541 919

Helbide elektronikoa: obgvx.igualdade@xunta.es

7. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila

http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html

Ugasko Bidea 3-2. sol. (Plaza eraikina)

48014 Bilbo

Tel.: 944 150 976

Faxa: 944 168 081

Helbide elektronikoa: ovgb.bgib@bizkaia.net

8. Genero Indarkeriaren Eskualdeko Behatokia

Madrilgo Erkidegoa

<http://www.madrid.org/es/transparencia/consejeria/observatorio-regional-violencia-genero>

Pza. Poncejos 3

28013 Madril

Tel.: 917 209 196

9. Cartayako Etxeko Indarkeriaren Tokiko Behatokia

Gizarte Zerbitzuak

Cartayako Udala

<http://www.ayto-cartaya.es>

Pza. Redonda zk. g.

21450 Cartaya, Huelva

Tel.: 959 390 000

Faxa: 959 390 220

Helbide elektronikoa: ayuntamiento@cartaya.es

10. Genero Indarkeriaren Tokiko Behatokia

Jerezko Udala

http://www.jerez.es/webs_municipales/observatorioviolencia/

Consistorio 15

11403 Jerez

Tel.: 956 149 300

Contacto: <http://www.jerez.es/contacto/>

11. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Behatokia

Mujeres Fundazioa

<http://observatorioviolencia.org/>

Francisco de Rojas 2-1. sol. ezk.

28010 Madril

Tel.: 915 912 420

Faxa: 914 472 461

Helbide elektronikoa: fondo@fundacionmujeres.es

12. Genero Indarkeriaren Zuzenbide eta Lan Arloko Behatokia

Malagako Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbide Departamentua

http://www.olvg.uma.es/index.php?option=com_frontpage&Itemid=1

Zuzenbide Fakultatea. Teatinos campusa

29071 Málaga

Tel.: 952 132 136

Fax: 952 132 689

Helbide elektronikoa: olvg@uma.es

13. Genero Indarkeriaren Irrati Behatokia

Salamanca Unibertsitatea

<http://radio.usal.es/programa/observatorio-radiofonico-de-la-violencia-de-genero/>

Radio Usal

Espejo 2

37007 Salamanca

Tel.: 923 294 400 Luzap. 5481

Helbide elektronikoa: radiouniversidad@usal.es

14. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Europako Behatokia (EWL Observatory on Violence against Women)

Emakumeen Europako Lobbya (LEM)

<https://www.womenlobby.org/-EWL-Observatory-on-Violence-against-Women-219-?lang=en>

EWL-LEF, 18, rue Hydraulique

B-1210 Bruselas

Tel.: +32 2 217 90 20

Fax: +32 2 219 84 51

Helbide elektronikoa: ewl@womenlobby.org

